

BERMEOKO UDALA

ADIKZIOEN PREBENTZIORAKO TOKIKO PLANA

2022-2026



Adikzioen prebentziorako tokiko plana

1	Sarrera	1-2
2	Esparru arauemailea	3-5
3	Esparru teorikoa	6-8
4	Gizarte- eta demografia-azterketa	9-11
5	Adikzioen egoera Bermeon	12-48
6	Komunitateak adikzioekiko duen pertzepzioa	49-55
7	Lehentasunezko ildo, helburu eta ekintzak	56-73
8	Planaren ebaluazioa	74-75
9	Bibliografia	76
10	Eranskinak	77-95

1

SARRERA

Adikzioen fenomenoak hainbat komunitatek aspalditik pairatu izan duten arazo konplexua da, gizartearen eraldaketekin batera aldatzen doana eta hainbat forma eta adierazpen har ditzakeena. Gaur egun mendekotasunen kontzeptualizazioa ez da substantzien kontsumoan soilik oinarritzen, baizik eta joko eta/edo teknologiek sor ditzaketen jarrera desegokiei ere erreparatzen die. Hala, mendekotasunen prebentzio lana eredu malgu eta dinamikoetan oinarritu behar da, une eta toki bakoitzeko errealitatearen heterogeneotasunera egokituaz.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2016. urtean mendekotasunen prebentzio alorrean mugarri garrantzitsua izan zen Adikzioen eta Droga Mendekotasunei buruzko Arreta Integralaren legea (1/2016 Legea, apirilaren 7koa) onartu zuten, non gaur egungo errealitatera egokitze eta arazo honi erantzun eraginkorra emateko oinarriak jasotzen diren. Bide horretan, 2017. urtean, Adikzioen Euskadiko VII. Plana aurkeztu zen eta, erreferentziazko eredu bilakatu zen prebentzio lanean.

Hau horrela, Bermeon ere, **herriko behar eta berezitasunei egokitutako adikzioen prebentziara bideratutako tokiko plana sortzea ezinbestekoa dela antzeman da**. Izan ere, udaleko plan bat izateak, mendekotasunei aurre hartzeko ekintza eta neurriak ezartzea errazten du, eta baita baliabide anitzen kudeaketa eta antolaketan profesional desberdinen arteko elkarlana eta koordinazioa ere (Custorio, García, Orriols, Sanchez eta Serra, 2013).



Plan honen helburu nagusia, herritarren osasun integrala bermatzea da, gehiegizko kontsumo eta jokabide arazotsuak sahiestuz. Osasun integralaz ari garenean, ez dugu adikziorik edo gaixotasun ezaz soilik hitz egiten; Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, **osasun integrala gizabanako baten ongizate fisiko, emozional eta sozialeko egoera dinamikoari deritzo**, hau da, norbanakoak gorputz osasuntsua izateaz gain, psikoafektiboki ere ondo egotea eta bere ingurunearekin modu egokian harremantzea eta garatzea garrantzitsua da. Beraz, osasun integrala **pertsona bakoitzak norbanako gisa dituen trebetasunak bultzatzean datza, herritarrak beraien bizi-proiektuetan ahalduz.**

Droga-mendekotasun eta bestelako adikzio-jokabideen prebentzio eraginkorra lortu nahi bada, ezin daitezke norbanakoa artatzeko neurriak soilik aintzat hartu, pertsonen garapenean eragiten duten alderdi guztiak ere kontuan hartu behar dira; ondorioz, planaren indarraldian zehar (2022-2026 urte bitartean) prebentzio lana ikastetxeetan, osasun- eta lan-zentroetan, familietan, auzoetan, aisialdian, norbere garapen emozional eta sozialean egingo da, azken batean, komunitateko sektore guztietan.

Orain aurkezten dugun tokiko planak, datozen lau urteetarako aurreikusitako ekintza, gidalerro eta udal politika guztiak barne-hartzen ditu. Estrategia hauen eratze-prozesuan, funtsezkoak izan dira herritarren eta gizarte-eragile esanguratsuen ekarpenak; batetik, udalerriko gaur egungo adikzioen errealitatea zein den sakonki jakiteko eta lehentasuna duten ekintzak zehazteko aukera eman dutelako eta bestetik, komunitatearen parte diren heinean, adikzioen aurkako borrokan aktiboki parte hartzeko balio izan duelako, herrian lortu nahi diren aldaketen protagonista bilakatzuz.

Horretaz gain, tokiko planean jasotako helburu, ekintza eta programen garapenean oso garrantzitsua izan da udal prebentzio mahai teknikoaren parte-hartzea. Bertan, udaleko hainbat sailtako adituak, beraien ezagutzaz eta esperientziaz baliatuz, herritarren beharrei erantzuteko baliabide eta estrategia egokienak aztertzen eta bilatzen aritu dira.

Laburbilduz, guztion artean sortutako plan hau, mendekotasunen esparruan udalaren eta Bermeoko herritarren arteko konpromisoa bultzatuko duen erreferentziazko dokumentua izatea nahi dugu; lehentasuna emanez herritarren osasun eta ongizatea bermatuko dituzten esku-hartzeei, bai norbanako eta giza-taldeei bizi proiektu baikorrak eraikitzeke baliabide eta laguntza eskainiz, bai ohitura eta jokabide arriskutsuak gutxitu eta ekidingo dituzten ekintzak sustatuz.

2

ESPARRU ARAUEMAILEA

Bermeoko Adikzioen Prebentziora bideratutako tokiko plana egiteko, ezinbestekoa da arazo honi aurre egiteko indarrean dauden estrategia eta araudiak aintzat hartzea. Izan ere legediak jasotzen dituen gidalerroek, proposatutako ekintzei oinarri legala eta beharrezko koherentzia ematen diete.



Nazioartean

Drogen alorrean, **Nazio Batuen Erakundea (NBE)** da mundu mailan erreferente nagusia, zehazki Droga eta Delituaren aurkako Saila. Hauek Munduko Osasun Erakundearekin (OME) eta Estupefazianteen batzordearekin batera elkar-lanean, **araudiak, politika neurriak eta laguntza teknikoa eskaintzen dute nazioartean.**

Europa mailan

Europar Batasunean (EB), 2021-2025 urteetarako drogen aurkako ekintza plana dago indarrean. Giza eskubideak ardatz nagusitzat dituen **estrategia honek, genero berdintasuna eta osasun-ekitatearen ikuspegia txertatu ditu** bere baitan, gizartearen eta norbanakoaren ongizate eta babesa izanik helburu garrantzitsuena. Horretarako, lehentasunezko hiru ildo estrategiko ezarri dituzte: **drogak eskaintzea murriztea** (segurtasun hobekuntzak), **drogak eskatzea murriztea** (prebentzio, tratamendu eta arreta zerbitzuak bermatu) eta **drogek eragindako kalteak artatzea.**



Estatu mailan

Gaur egun estatuan indarrean dagoen **Adikzioen Ekintza Plana (2021-2024)**, Adikzioei buruzko Estrategia Nazionalaren bidez (2017-2024) garatzen da. Bere **eginkizun nagusia, ebidentzian oinarritutako ikuspegi integratu eta orekatua duen erreferentziatzeko esparrua eskaintzea da**, administrazio eta erakunde publikoek adikzioekin zerikusia duten planak eta programak abian jar ditzaten. Bere helburu nagusiak hiru dira:

- Drogen kontsumoak eta jokabide-adikzioek eragindako kalteak murriztea.
- Drogen kontsumo eta jokabide-adikzioen presentzia murriztu.
- Mendekotasuna garatzeko adina ahalik eta gehien atzeratzea.

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE)



Abenduaren 15ean, Lehendakariak, 20/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera, Osasun Publikoa eta Adikzioak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari esleitutako arloak dira.

Adikzioen eta Drogomendekotasunen Arreta Integralari buruzko Apirilaren 7ko 1/2016 Legeak arautzen ditu EAE-n mendekotasunak. Lege honek, osasunerako hezkuntza proposatzen du oinarritzko estrategia gisa, adikzioen fenomenoari ekiteko diziiplina anitzeko esku-hartze integrala sustatuz eta **lehentasuna emanez ohitura eta kultura osasuntsu batera bideratutako prebentzio ekintza-eremuei.**

Garrantzizko prebentzio eremu horietako bat **esparru komunitarioa** da, izan ere beste eremuetan ez bezala, udal eta mankomunitateek garatzen dituzten prebentzio jarduerak **pertsona eta komunitatearekiko hurbiltasuna ahalbideratzen dute**, tokian-tokiko errealitatera egokitutako esku-hartze eraginkorrak gauzatuz. Horregatik, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren agindu honen bidez, **adikzioen prebentzio komunitarioko talde teknikoak sortzea eta mantentzea bermatu nahi da, EAE-ko udalei eta mankomunitateei honako eskumenak emanez:**

68. artikulua.- Udalaren eskumenak

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie, bere lurralde eremuan:


- a) Adikzioen udal-plana eta, oro har, arlo horretako programak eta jarduerak egin, garatu eta burutzea, lege honetan, Euskadiko Adikzioen Planean eta, hala badagokio, dagokion foru-planean xedatutakoari jarraikiz.
- b) Lurralde eremu bakoitzean, adikzioen arloko aholkularitza- eta koordinazio-organoak sortzea eta horien funtzionamendua arautzea .
- c) Dagokio lurralde eremuan, adikzioen arloko sariak eta aintzatespenak kudeatzea.
- d) Lege honetan aurreikusitako kontrol neurriaen gainbegiratze eta zaintza.

Era berean, prebentzio lan egokia arautzen duten beste artikulua batzuk ere aintzat hartu behar dira:

13. artikulua.- Adikzioen Prebentzioa	Lege honen esparruan, adikzioak eragiten dituzten arrisku-faktoreei, kontsumo arazotsuei eta gehiegizko erabilerei prebentzio neurriak ezarriko zaizkie. Halaber, administrazio publikoek ere, bakoitzak bere eskumenen barruan, herritarrak kontzientziatzeko eta orientatzeko prebentzio neurriak hartuko dituzte, batez ere osasun, hezkuntza eta gizarte-zerbitzuetan.
15. artikulua.- Prebentzioa familia eremuan	Gurasoak eta/edo tutoreak sentsibilizatzeko esku-hartze eta programak gauzatuko dira, haurtzaroan eta nerabezaroan zehar babes-faktoreen sustapenean duten garrantziaz ohartarazteko.

16. artikulua.- Prebentzioa eremu komunitarioan	Esparru komunitarioko prebentzioak, lehentasuna du eta populazio orokorrean edo interes handieneko taldeetan eragin handiena duten baliabideak eta pertsonak hartzen ditu bere baitan, hala nola ikastetxeak, gizarte- eta kultura- zerbitzuak, gazte, kultura, kirol eta boluntarioritza-elkarteak, profesionalen kolektiboak eta lantokiak.
17. artikulua.- Prebentzioa hezkuntza eremuan	Ikasturtean zehar, ikasmaila guztietako ikasle eta irakasleak drogen kontsumo eta gehiegizko portaera arriskutsuen inguruan sentsibilizatu eta informatuta mantendu. Lehentasuna emango zaio ikasleriaren norbere ezagutza, autoestimua, emozioen kudeaketa, norbere autonomia, erabakiak hartzeko gaitasuna eta jarrera prosozialak sustatzen dituzten baliabideen erabilerari.
22. artikulua.- Prebentzioa kirolaren, aisialdiaren eta denbora librearen esparruan	Osasunaren, gazteriaren, kirolaren, kulturaren eta hezkuntzaren arloan eskumena duten herri-administrazioek, substantzien kontsumoa, jarrera adikzioak eta jokabide-adikzioak eragin ditzaketen ondorio arriskutsuak saiheste aldera, aisialdi eremu osasuntsuak bultzatuko dituzte politika integralen bitartez. Horretarako: a) Aisi eta denbora librean dibertitzeko alternatiba osasungarri eta dibersifikatuak ezarriko dira. b) Teknologia digitalen eta aplikazio berrien erabilera arduratsua sustatzea. c) Gazteen inplikazio eta elkarlana bultzatzea, aisialdi, kirol edo kultura programetan beraien parte-hartzea sustatuz, batez ere, zaugarriak diren norbanako edo gizataldeen kasuan.
69. artikulua.- Aurrekontu konpromisoak	Udaleko aurrekontu orokorrek, lege honetan ezarritako jarduerak gauzatzeko beharrezko kredituak aurreikusi beharko dituzte, bere eskumenen barruan, aurrekontu-erabilgarritasunen, onartutako programen eta xede horrekin izenpetutako hitzarmenen arabera.

Azkenik, proposamen honek, kontuan izan ditu **Euskadiko Adikzioen VII. Planak (2017-2021)** barne-hartzen dituen lehentasunezko gidalerroak eta garatu beharreko neurri esanguratsuenak:



3

ESPARRU TEORIKOA

Adikzioen prebentziorako tokiko plana, ikuspegi eta eredu teoriko osagarriez osatutako puzzlean kokatzen da. Izan ere, etengabea aldatzen ari den aniztasun handiko gizarte baten parte gara eta, ezinbestez, adikzioak bere osotasunean ulertzeko hainbat esparru teoriko garatu dira historian zehar.

Plana aurrera eramateko estrategia aukeratzean, teorikoki zein zientifikoki ondo arrazoituta dagoela ziurtatu behar dugu. Horretarako ezin diogu prebentzio-lanari ikuspegi bakarretik heldu, eredu interaktibo, malgu eta irekietan oinarritu behar gara, sortzen diren egoeren nolakotasun eta uneen uneko aldaketei eraginkortasunez erantzuteko. Gainera, urteetan zehar hainbat prebentzio esku-hartzek erakutsi dutenez, mendekotasunei aurre egiteko giltzarria komunitatea osatzen duten kideen parte hartzea da, hausnarketarako testuinguruak sortuz eta beraien bizi-prozesu eta erabakietan ahaldunduz eta erantzunkidetasuna sustatuz.

Plan hau egitean, adikzioen fenomenoak hobeto ulertzeko eta esku-hartzearen nondik-norakoak zehazteko, begirada bateratu bat eskaintzen duten hainbat eredu teorikoen ekarpen zehatzetan oinarritu gara.

EREDU EKOLOGIKOA (Bronfenbrenner, 1981)

Teoria honen arabera, pertsonen garapena, norbanakoak bere inguruarekiko harremanetan bizi duen etengabeko egokitze prozesuaren emaitza da; hala nola, eskola, familia, lagun-taldea, komunikabide eta komunitatearekin orokorrean.

Ezartzen diren harreman guztiek pertsonaren bizi-ibilbidean eragin zuzena dute, baina harremanak bi noranzkoak direnez norbanakoak ere inguruan eragiten du. Horregatik adikzioen fenomenoak ulertzeko eta arrisku jokabideei aurre hartzeko, beharrezkoa da pertsonaren ezaugarriak aztertzeaz gain, honek inguruarekin ezartzen dituen interakzioak aintzat hartzea.

Ilido beretik, mendekotasunen aurrean babes faktoreak indartzeko eta arrisku faktoreak txikitzeko funtsezkoa izango da inguru osoan esku-hartzea eta hauen arteko harreman koherenteak indartzea.

EREDU SOZIALA (Stanton Peele, 1985)

Eredu hau pertsonen egunerokotasunean mendekotasunei ematen dieten esanahian oinarritzen da, hau da, adikzioa norbanakoak bere bizipenak interpretatzeko duen moduagatik gertatzen da. Erronka edo gatazkei aurre egiteko gaitasunek, norbere pertzepzioak, iraganeko bizipenak, nortasunak eta testuinguru sozialak drogen kontsumo eta honi aurre egiteko modua baldintzatuko dute.

Pertsona askok, estres, antsietate, sufrimendu eta ezegonkortasun egoerei erantzun emateko edota emozio desatseginetatik deskonektatzeko, droga kontsumora eta/edo mendekotasuna sortzen duten jokabideetara jotzen dute.

Autore honen esanetan, gure kulturak frustrazioarekiko tolerantzia maila baxua dauka eta berehalako ongizate eta gogobetetze maila bilatzen du; ondorioz substantzien kontsumo edo adikzioa sortzeko gaitasuna duten jokabideak izatea (kirol apustu, zorizko-joko, sare-sozial, e.a.) oso onartuta daude gure gizartean. Horregatik, erabilera edo kontsumo arduratsu eta gehiegizko kontsumo edo erabileraren artean bereizten irakatsi behar zaio jendeari, herritarren artean arrisku pertzepzioak eraldatuz eta arazo honen inguruan kontzientzia sortuz.

EREDU BIO-PSIKO-SOZIALA (George L. Engel, 1977)

Teoria honen arabera, faktore biologiko, psikologiko eta sozialek giza jardueran, gaixotasunean, desgaitasun egoeretan eta adikzio-prozesuetan eragin esanguratsua dute.

Prebentzio esparruan eredu honen ekarpenik adierazgarriena "arrisku-faktore" kontzeptua sortzea izan da. Ikuspegi honetatik, arrisku-faktoretzat hartzen da pertsona batek mendekotasun bat hasteko eta mantentzeko aukerak areagotzen dituen inguru zein pertsonen ezaugarri multzoa. Horregatik, honi esker, adikzioaren garapenarekin lotura esanguratsua duten elementu, egoera eta gertaerak eraginkortasunez antzeman eta mugatu ahal izan dira.

EREDU KOMUNITARIOA (Emory Cowen, 1980; Felner, Jason, Moritsugu eta Faber, 1983)

Mendekotasunen prebentzioa eredu komunitario batetik heltzeak, testuinguru mikrosozialen (familia, lagun talde, auzo, e.a.) eragina kontuan hartzea ahalbidetzen du, bai adikzioen sorreran zein hauen garapenean. Hori dela eta, konponbide eta estrategien bilaketa-prozesuan komunitatearen parte-hartze antolatua beharrezkoa dela baieztatzen da; aldi berean gizarteratze gune anitzetan lan egiteko aukera eskainiz.

Horretaz gain, eredu honek, komunitatearen baliabiderik preziatuena pertsonak direla defendatzen du, bereziki lurralde bateko bizilagunek duten ekimenerako gaitasuna goraipatzen da. Izan ere pertsonen gaitasunez baliatuz gizartearen behar eta eskariei modu eraginkorrean erantzuten zaie.

Plan honetan proposatzen diren prebentzio ekintza eta esku-hartzeak, hainbat **prebentzio mailatan** oinarritzen dira, ekintzaren xede diren gizataldeen arriskugarritasun eta zaurgarritasun mailaren arabera:

PREBENTZIO MAILAK



4


GIZARTE- ETA DEMOGRAFIA- AZTERKETA

4.1 BIZTANLERIA

Bermeo Busturialdea- Urdaibai Bizkaiko iparraldean dagoen eskualdean dago. Bertako udalaren arabera, 2021.urtean **17.121 biztanle** zituen, horietatik **8.685 gizon**ezkoak (% 50,73) eta **8.436 emakume**zkoak (% 49,77). Adin-tarteak kontuan izanik hau da biztanleriaren banaketa:

ADIN-TARTEA	BIZTANLEAK	EMAKUME	GIZON
0-9 urte bitarte	1.383	681	702
10-19 urte bitarte	1.667	785	882
20-29 urte bitarte	1.538	751	787
30-39 urte bitarte	1.882	931	951
40-49 urte bitarte	2.723	1.312	1.411
50-59 urte bitarte	2.663	1.337	1.326
60-69 urte bitarte	2.209	1.138	1.070
70-79 urte bitarte	1.782	942	840
80-89 urte bitarte	1.020	629	391
90-109 urte bitarte	254	179	75
GUZTIRA	17.121	8.685	8.436

Iturria: Bermeoko Udala




Iturria: Bermeoko Udala

INE-k (Estatistikako Institutu Nazionala) dioenez, 1996tik 2020era Bermeoko **hazkunde begetatiboa negatiboa** izan da. Bertako biztanleria galdu den arren, migrazioaren prozesuari esker biztanleria mantendu ahal izan da.

Bermeon bizi diren atzerritarren jaioterria Errumania da nagusiki (%22,4), atzetik datoz Senegale (%9,2), Maroko (%8,3), Bolivia (%7,7), Kolonia (%7,3) eta azkenik Peru (%4,5).

Jarraian datorren mapan ikus daitekeen bezala, kontinenteak kontuan izanda, Bermeon bizi diren atzerritar gehienek jatorria Hego Amerika da.



Iturria: INE (Estatistikako Institutu Nazionala)


4.2 FORMAKUNTZA

2020. urtean, **goi-mailako ikasketak** zituen biztanleriaren tasa **%14,65**a izan zen, Euskadiko bataz bestekoa baino ia bost puntu txikiagoa, alegia. Hala ere, **lanbide-heziketa** dutenen tasa **%20,3**a da; Bizkaiko bataz bestekoa (**%19**) eta Euskal Autonomia Erkidegokoa (**%19,7**) baino handiagoa.

Herritarren hizkuntzari dagokionez, 2016. urtean, **euskaldunen tasa %73,3** izan zen, ia-euskaldunena %10,6 eta erdaldunena % 16,1. Bizkaiarekin alderatuz gero, euskaldunen tasa Bermeen bikoitza da eta Euskal Autonomia Erkidegoko bataz bestekoa baino 30 puntu handiagoa.

IKASKETA MAILA	Bermeo	Bizkaia	Euskadi
Analfabetoak	% 0.23	% 0.31	% 0.29
Ikasketa gabe	% 2.88	% 2.11	% 2.02
Lehen mailako ikasketak	% 35.43	% 29.82	% 30.00
Lanbide ikasketak	% 20.28	% 19.00	% 19.72
Bigarren mailako ikasketak	% 20.89	% 21.43	% 21.54
Erdi-mailako ikasketak	% 5.63	% 6.97	% 6.85
Goi-mailako ikasketak	% 14.65	% 20.36	% 19.59

Iturria: EUSTAT, 2020



4.3 JARDUERA EKONOMIKOA


Bermeoko **jarduera ekonomiko nagusia**, 2019ko datuen arabera, zerbitzuen sektorea da **%52,6** batekin eta **lehen sektorea** da (nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza) **% 32,5**.

JARDUERA EKONOMIKOA	Bermeo	Bizkaia	Euskadi
Lehen sektorea	% 32.5	% 0.8	% 0.9
Industria eta energia	% 10.7	% 18.6	% 23.9
Manufaktura sektorea	% 9.4	% 15.5	% 20.5
Eraikuntza	% 4.2	% 6.0	% 5.9
Zerbitzu sektorea	% 52.6	% 74.6	% 69.4
Merkataritza, ostalaritza, garraioa	% 13.9	% 22.3	% 21.0
Administrazio publikoak, Hezkuntza, Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak	% 14.4	% 16.4	% 16.8
Beste zerbitzu batzuk	% 24.3	% 35.9	% 31.5


Iturria: EUSTAT, 2019

Langabezia- tasari dagokionez, **2020. urtean % 12,94**koa izan zen, **996 pertsona** alegia; **% 13,4 gizonetan** eta **% 14,2 emakumeetan** (Lanbide, 2020). Tasa hau Bizkaikoa (% 10,4 gizonak eta % 11,9 emakumeak) eta baita ere Euskadiko (% 9,2 gizonak eta % 11,2 emakumeak) batatz bestekoa baino handiagoa da. Lanbideren datuen arabera, Bermeoko **enplegu sormenaren indizea baxua da.**

Kontratazio kopurua



Eskatzaile langabeen kopurua



Beste alde batetik, 18 urtetik gorako pertsonen **per capita errenta 19.747 €**-koa da (EUSTAT, 2019), Bizkaikoa (22.059 €) eta Euskadikoa (22.601 €) baino askoz txikiagoa. Generoaren arabera alde handiak ikusten dira; **gizonen per capita errenta 23.789 €**-koa da eta **emakumeena berriz, 15.922 €**-koa, hau da, ia % 50 txikiagoa (EUSTAT, 2019).

5

ADIKZIOEN EGOERA BERMEON

Udalerrian dagoen substantzien kontsumo eta teknologia digitalen erabilerari buruzko errealitatea zein den jakin ahal izateko bi iturri nagusitan oinarritu gara. Batetik, Eusko Jaurlaritzak, 2017. urtean egindako kontsumo eta jarrera adiktiboen inguruko ikerketak izandako emaitzetan, eta bestetik, tokiko informazioa biltzeko, Bermeoko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako 796 ikaslek erantzundako galdetegi zabal batean.


Populazio taldea	Inkesta	Lagina
Udalerriko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergo, Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi-mailako eta Goi-mailako Lanbide Heziketako ikasleak	Erabilera, kontsumo, ohitura eta iritzia emateko inkestak Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan	796 inkesta
Euskadiko biztanleria heldua	Inkesta “Euskadi eta Adikzioak” Eusko Jaurlaritza (2017)	2.013 inkesta

Bermeoko bost ikastetxetako ikasleek parte hartu dute, era anonimoan, legezko eta legekanpoko substantzien kontsumo edota substantziarik gabeko adikzioei buruz duten ezagutza, pentsamendu eta ohiturei buruzko informazioa emanez. Honako hauek izan dira parte hartu duten ikastetxeak eta ikasleak generoaren arabera banatuta:


IKASTETXEA	EMAKUMEAK	GIZONAK	EZ-BITARRAK	EZ DU ERANTZUN	GUZTIRA
Sagrado Corazón	94	100	7	-	201
Ignacio Arocena-Benito Barrueta BHI	177	153	8	-	338
Eleizalde tar Luis Ikastola	81	107	4	-	192
OLH Bermeo	7	32	1	2	42
Nautika Eskola	1	22	-	-	23
GUZTIRA	360	414	20	2	796

Iturria: Bermeoko Udala

Aztertutako hezkuntza mailak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1., 2., 3., 4. maila, Batxilergo eta Oinarrizko-, Erdi-, eta Goi- mailako Lanbide Heziketa izan dira:



Iturria: Bermeoko Udala



Adinarekin batera aztertzean honela banatzen dira datuak:

ADINA	EMAKUMEAK	GIZONAK	EZ-BITARRAK	GUZTIRA
11 URTE	5	12	-	17
12 URTE	68	73	5	146
13 URTE	76	81	2	159
14 URTE	64	82	4	150
15 URTE	59	66	3	128
16 URTE	40	47	3	90
17 URTE	43	32	1	76* Pertsona batek ez du generoa zehaztu
18 URTE	3	7		10
19-30 URTE	2	11	2	15* Pertsona batek ez du generoa zehaztu
31-45 URTE	-		-	2
GUZTIRA	360	413* Gizonezko batek ez du adina zehaztu	20	793

Iturria: Bermeoko Udala

5.1 IKASLEEN KONTSUMOAK ETA PORTAERAK


Gizartea etengabeen aldatzen ari da, eta aldaketa horiek eragin zuzena dute herritarren substantzien kontsumo- ohituretan. Hala, orain dela urte batzuk tabakoa bazen jendeak orokorrean probatzen zuen lehenengo droga, gaur egun joera hori aldatu egin da eta alkohola izan ohi da beste drogei atea irekitzen dien sarrerako substantzia.

ALKOHOLA

▶ ALKOHOLA PROBATZEA


NOIZBAIT ALKOHOLA PROBATU DUZU?

Baietz erantzun dute parte hartu dutenen %47,6k, gizonezkoen %40,6k, emakumezkoen %55,8k eta pertsona ez bitarren %40k. Adinari dagokionez, adina handitzen doan heinen alkohola dastatu dutenen kopurua handitzen doala argi islatzen da, 11 urterekin %5,9k dastatu dute eta goranzko joera du 31-45 urterekin inkestatuen %100era iritsi arte.



Iturria: Bermeoko Udala

Adin eta generoari erreparatuz, azpimarragarria da alkohola dastatu duten emakume kopurua adin-tarte guztietan gizonezkoena baino handiagoa izatea 19 urtera arte, hemen joera aldaketa bat antzeman daiteke. Gainera 13-14 urterekin, emakumezkoen probatze tasak gizonezkoena bikoizten du (%21 vs.%42; %29 vs.%55), adin tarte hori erabakigarria da, alkohola edaten hasten baitira. (ikus 1. Eranskina).




**13 urte eta
8 hilabete**

Bermeon edaten hasteko
adina

%34,4


14 urterekin edo arinago
hasi dira alkohola
kontsumitzen



13-14 urterekin hasi dira
kontsumitzen

Generoari dagokionez, genero ez bitarreko pertsonak dira alkohola adin goiztiarragoetan dastatzen dutenak, 12 urte eta 10 hilabeterekin, baina kontuan izan behar da lagina ez dela esanguratsua, guztira 8 ikaslek erantzun baitute galdera. Ondoren emakumeak 13 urte eta 7 hilabeterekin hasten dira eta beranduen gizonak, 14 urterekin.

**Nork eskaini zizun
lehen alkohol
kontsumo hori?**



Datuak generoaren arabera aztertzen direnean honako emaitzak topatzen dira:

Nork eskaini zizun?	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Ez bitarrak
Aita-Ama	% 10	%11.9	% 8.3	-
Neba-arreba	% 2.4	% 2.5	% 2.4	-
Lagunak	% 50.4	% 53, 7	% 48.2	% 12.5
Beste senide batzuk	% 1.3	% 0.5	% 2.4	-
Nik aukeratu nuen	% 36.9	% 31.3	% 38.7	% 87.5



ALKOHOLA KONTSUMITZEA

Aurrerago aipatu bezala, galdetegian parte hartu dutenen ia erdiak alkohola probatu dute (%47,6) eta horietatik **%75,2k azken hilabetean kontsumitu dute.**

ZENBATERO KONTSUMITZEN DUZU?

Alkohola edaten dutenen %32,9k ohituraz hilean behin edo gutxiagotan kontsumitzen dutela diote, %38,2k hilean bi edo lau aldiz eta %12,1k astean behin baino gehiagotan.

Alkohol kontsumoa kualitatiboki neur daiteke alkohol- unitate edo gramotan.

**ALKOHOL
UNITATEA**


Alkohol unitate batek 10 gramoren baliokidetasuna dauka; hau da, 100ml.-ko ardo kopa bat, garagardo bat edo graduazio altuko alkohol txupito bat

ZENBATEKO KONTSUMOA EGITEN DUZU?


Informazio hori lortu ahal izateko, ikasleei eskatu diegu azken hilabetean alkohol gehien kontsumitu duten egun bakarrean zer edan duten zehazteko. Horrela, azpiko taulan genero eta egun bakarrean kontsumitutako alkohol kantitatearen arteko erlazioa agertzen da.

Alkohol unitateak	Gizonak	Emakumeak	Ez bitarrak	Guztira
0.1-5	% 6.8	% 8.3	-	% 7.3
5.1-10	% 3.6	% 4.2	% 5.0	% 3.9
10.1-15	% 1.9	% 1.1	-	% 1.5
15.1-20	% 4.1	% 4.2	% 10.0	% 4.4
>20	% 17.1	% 32.8	% 25.0	% 24.4
Guztira	% 33.5	% 50.6	% 40	% 41.5


Generoaren arabera emakumezkoen kontsumoa gizonezkoen baino altuagoa da orokorrean, **desberdintasun hau bereziki nabarmena da 20 alkohol unitate (200g) baino gehiagoko kontsumoetan.**

200 g alkohol edo gehiago kontsumitzea azken hilabeteko egun bakarrean


EMAKUMEAK




GIZONAK



P. EZ BITARRAK



KONTSUMITUTAKO ALKOHOL KANTITATEA ADINAREN ARABERA




Ikus 2. Eranskina

Ikerketan generoa aztertuz gero, kontsumorik arriskutsuenak zein adin- tarte eta generotan ematen ari diren ikus dezakegu (ikus 3. Eranskina). Ondoren agertzen dira daturik garrantzitsuenak:

KONTSUMITUTAKO ALKOHOL KANTITATEA ADINAREN ETA GENEROAREN ARABERA

Emakumeek adin-tarte guztietan gizonezkoek baino kontsumo -tasa handiagoa dute.



INOIZ MOZKORTU ZARA?

Parte hartu dutenen %67,2 ez da inoiz mozkortu, baina gainerako %32,8tik %10,3a behin bakarrik mozkortu da, %29,1a bi aldiz, %35,2a hilean behin eta %25,2a astean behin.

Kontsumoen eta hauek eragindako ondorioen datu zehatzagoak lortze aldera, azken sei **hilabeteetan** bizi izandako mozkorraldiei buruz ere galdetu zaie. Kasu honetan, mozkortu diren pertsonen tasa pixka bat jaitsi da **%30,2ra**. Hauetatik **%42,3k behin edo pare bat aldiz** mozkortu direla onartu dute azken seihilekoan, **%25,7k ordea, 10 aldiz baino gehiago** mozkortu direla esan dute.



ALKOHOLA KONTSUMITZEKO ETA EZ KONTSUMITZEKO ARRAZOIAK

Garrantzitsua da gazteen alkohol kontsumoaren atzean ezkutatzen diren arrazoiak zeintzuk diren jakitea. Jasotako erantzunen artean honako hauek izan dira adierazgarrienak:

ALKOHOLA KONTSUMITZEKO ARRAZOIAK

Ondo pasatzeko	% 63.7
Arazoak ahazteko- denataz paso egiteko	% 56.4
Nire lagunek egiten dutelako	% 52.4
Sentsazio berriak bizitzeko	% 43.9
Taldearen parte sentiarazteko	% 43.5

ALKOHOLA EZ KONTSUMITZEKO ARRAZOIAK

Osasunerako kaltegarria delako	% 44.72
Ez dudalako nahi besterik gabe	% 16.6
Kontrola galtzen delako	% 9.9
Ez dudalako ondo pasatzeko behar	% 9.5

▶ ALKOHOL KONTSUMOAN ARRISKU PORTAERAK ANTZEMATEKO FROGA: AUDIT TESTA (Alcohol Use Disorders Identification Test)

Audit testa, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) sortu zuen 1989. urtean, (1992.urtean eguneratua). Alkohol kontsumo arriskutsu eta kaltegarriak dituzten pertsonak identifikatzeko balio duen baheketa tresna da. Arrisku egoeran dauden pertsona edaleekin esku-hartzea egiteko testuinguru aproposa eskaintzen du, bai alkohola guztiz utzi edo kantitateak murrizteko, zein kontsumoak eragin ditzakeen kalteak ekiditeko. Horretaz, gain, alkoholarekiko mendekotasuna eta beste zenbait ondorio zehatz antzemateko ere baliagarria da.

NOLA IRAKURRI DATUAK?

Arrisku kontsumoa, mendekotasun sintomak eta kontsumo kaltegarria neurtzen dituzten 10 galderaz osatua dago. Balorazioa 0 eta 40 puntu artekoa da eta pertsona helduetan honela interpretatzen da:

- 0tik 7puntura: Abstinentsia edo arrisku baxua.
- 8tik 15 puntura: Alkoholarekin arazoak izateko erdi mailako arriskua.
- 16tik 19 puntura: Alkoholarekin arazoak izateko arrisku handia.
- 20 puntu edo gehiago : Alkoholaren mendekotasunaren ebaluaketa diagnostikoa



Proba hau batez ere pertsona helduekin erabili izan da esparru klinikoan, ez hainbeste nerabeekin, beraz lau estatistiken mozketak-mailak ez daude argi zehaztuta, baina nazioarteko adostasuna dago maila horiek nerabezaroan puntuazio baxuagoekin lortzen direla.


Aztertutako populazioan, honako datu hauek lortu dira (ikus 4. eranskina).

MENDEKOTASUNA >19	Arrisku handiko parametroei erreparatuz, lagineko 32 pertsonek alkohol kontsumoarekiko portaera oso kaltegarriak izaten ari dira , kasu hauetan egokiena egoeraren balorazioa egin dezakeen profesional batengana bideratzea litzateke.
ARRISKU HANDIA 16-19	Eskala bat jaitsiz gero, 34 dira 16 eta 19 bitarteko puntuazioa duten pertsonak jarrera desegokiak erakusten dituzte eta hauek kontrolpean mantendu beharko lirateke alkoholarekiko mendekotasuna garatzeko duten arriskuagatik.
ERDI MAILAKO ARRISKUA 8-15	Puntuazioan behera eginez, 8 eta 15 puntu bitartean 167 pertsona daude (%21) . Hauek alkohol mendekotasuna garatzeko arrisku nahiko handia izan dezakete bizitzako adin goiztiarretan.
ABSTINENTZIA EDO ARRISKU BAXUA	Parte hartu dutenen %70,7k ez dute joera arriskutsurik erakusten alkohol kontsumoan.

ETA ALKOHOLA KONTSUMITZEN EZ DUTENEK?

Alkoholaren gaia bukatzeko, **etorkizun hurbilean alkoholik edaten ez duten gazteei alkohola edango ote duten galdetu zaie**. Inkestatuen **%53,4k baietz** erantzun dute, %26,7k agian eta %19,7k ezetz. Generoaren arabera, alkohola edango dutela uste dute emakumeen %62,8k, gizonezkoen %45,7 eta genero ez bitarra duten pertsonen %45.







TABAKOA ETA BAPERRA

Duela urte batzuk arte, tabakoa izan da gazteen artean dastatzen zen lehenengo substantzia, baina gaur egun alkoholak bigarren postura eraman du. Substantzia hau probatzeko eta kontsumitzeko tasen jaitsiera esanguratsua izan da azken urteetan, udalerrian egindako prebentzio lanarengatik, zein legediaren aldaketa eta komunitatearen kontzientziazio maila altuarengatik. Gizartean orokorrean iritzi eta joera aldaketa egon da substantzia honen erabilerari dagokionez, eta horrek eragin du gaur egun Euskadin azken urteetako tabako kontsumo tasarik txikiena izatea. Hala ere, beste gailu batzuk agertzeak, hala nola baperrak, tabakoa ordezkatu dute gazteen artean.

► TABAKOA/ BAPERRA PROBATU

Bermeon noizbait **tabakoa probatu dutenen kopurua %27,3koa** da eta **baper-ra probatu dutenena % 30,9koa**. Emakumezkoak izan dira dastatze- tasa altuena erakutsi dutenak substantzia bietan, gizon eta pertsona ez bitarrekin alderatuta.





TABAKOA eta BAPERRA ADINAREN ARABERA



13 urtekoen artean bost gaztetik batek tabakoa probatu du. 14 urtetik aurrera jauzi kuantitatibo adierazgarria gertatzen da, adin honetako gazteen %16,7k probatzetik 15 urterekin %41,4k probatzera igo da tasa, hau da, urtebetean ia 25 puntuko igoera ematen da. 16 urtetik aurrera, 17 urtekoen kasuan izan ezik, beste adin-tarte guztietan hiru pertsonatik batek tabakoa probatu du.

Baperra pertsona gehiagok dastatu dute adin goiztiarretan. Horrela, 13 urtekoen artean %28,3k noizbait baperra dastatu du, tabakoa baino 9 puntu gehiago. 14 eta 15 urterekin baperra tabakoa baino gehiago dastatzen da, baina 16 urterekin tabakoa probatu duten pertsona kopurua baperra dastatu dutenen bikoitza da, eta 17 urterekin berriz kontrako joerara bueltatzen da.

13 urte eta 8 hilabete


Tabakoa kontsumitzen
hasteko adina

%49,1

13 urterekin edo arinago hasi
dira tabakoa kontsumitzen

%40,7

14-15 urte bitartean hasi dira



10 etik 1, 16 baino
gehiagorekin hasi da

Generoari erreparatuz gero, ez dago desberdintasun esanguratsurik. Emakumeak 13 urte eta 7 hilabeterekin hasten dira, pertsona ez bitarrak 13 urte eta 8 hilabeterekin eta gizonezkoak azkenen, 13 urte eta 9 hilabeterekin.


TABAKOAREN OHIKO KONTSUMOA

TABAKOA KONTSUMITZEN DUZU?


Parte hartu dutenen %27,3k tabakoa dastatu badu, horietatik %18,2k ohituraz (azken 30 egunetan) kontsumitzen dute. Hauetatik, **ia erdiek (%8,8), egunero erretzen dute.**

TABAKOAREN OHIKO KONTSUMOA ADINAREN ARABERA

EGUNEROKO TABAKO KONTSUMOA GENEROAREN ARABERA




Emakumeak



Gizonak



Ez bitarrak




Eta tabakoaren ohiko kontsumoa adin eta generoaren arabera aztertzen bada?

13 urterekin jada genero arteko desberdintasun oso nabarmenak ageri dira azken hilabeteko tabako kontsumoan; zehazki 16 puntuko tarte dago gizon eta emakumeen kontsumoetan (%21,1 vs. %4,9). Joera hau 14 urterekin mantentzen da, baina 15 urtekoen artean aldaketa dago eta tabako kontsumoa gizonaezkoetan emakumeetan baino altuagoa da (%30,3 vs. %27,1). Hala ere, 16 eta 17 urterekin, emakumeak berriz ere gailentzen dira gizon eta pertsona ez bitarren gainetik. (Ikus 5. eranskina)

TABAKOA EGUNERO KONTSUMITZEN DUTENAK

Azken hilabeteetan tabakoa kontsumitu dutenetatik, **%48,27k egunero edo ia egunero (hilean 20 egun baino gehiago) erretzen dute**. Egoera honetan ere, emakume erretzaile gehiago daude, 15 urte eta helduen kasuan izan ezik, non gizonaezkoak diren gehiengoak. Jarraian ageri den grafikoan argi islatzen da:



*Genero ez bitardun pertsonak ez dira grafikoan ageri pertsona bakarra baita eguneroko erretzailea.





KALAMUA

Kalamua da gazteen artean kontsumitzen den legez kanpoko lehen droga. Normalean, substantzia honen kontsumoa tabakoarena baino urtebete edo pare bat urte beranduago agertzen zen, baina tabakoaren hasiera atzeratzean, substantzia biak kontsumitzen hasteko denbora tarteak murriztu egin da azken urteotan.

► KALAMUA PROBATZEA

NOIZBAIT KALAMUA PROBATU DUZU?

Aztertutako populazioaren artean, bizitzan noizbait kalamua probatu dute **%22,6k**; lagineko emakumeen %25,3k, gizonezkoen %20,3k eta pertsona ez bitarren %20k.

↪ **Eta adina hartzen bada kontuan?**
(Ikus 6. eranskina)

- **13 urterekin** ehun gaztetik bederatzik kalamua probatu dute.
- Bereziki deigarria da **14 urtetik 15 urtera** dagoen desberdintasuna; izan ere, %12,7tik %39,1era igotzen da, hau da, 26.4 puntu hasi da dastatze tasa urte batetik bestera.
- **17 urtekoen kasuan** ere, tasa altuak agertu dira, %57,1k probatu dute kalamua.
- **18 urte edo gehiagorekin** 10 lagunetik 6k dastatu dute.

KALAMUA PROBATZEA ADIN ETA GENEROAREN ARABERA


11-12urte	Ez dago desberdintasun handirik generoaren arabera
13-15 urte	Emakumeek gizonezkoek baino tasa askoz ere handiagoak erakutsi dituzte, ehunekoak bikoiztuz (13 urterekin %6.2 vs. %13.2) eta hirukoiztuz (14 urterekin %6.1 vs. %20.3).
15 urte	Berriz ere antzeko tasak dituzte. Aipatzekoa gizonezkoen artean ematen den gorakada , %6.1etik % 39.4ra hazten da (33 puntu).
18 urte +	Gizonezkoen tasak gailentzen dira

14 urte eta hilabete 1


Kalamua kontsumitzen hasteko adina

%58,1

14-15 urterekin hasten dira kalamua kontsumitzen




13 urterekin edo lehenago edo 15 baino gehiagorekin hasiak kalamua kontsumitzen



KALAMUAREN OHIKO KONTSUMOA

AZKEN 30 EGUNETAN KALAMUA KONTSUMITU DUZU?


Kalamua azken 30 egunetan kontsumitu duten gazte eta nerabeen tasa %13,2koa da, hau da, probatu dutenen %58. Gizonezkoen artean %14.5, emakumezkoen artean %12.3 eta pertsona ez bitarren %5.



Grafikoan ikus daitekeenez, **kontsumo altuenak 15 eta 17 urteko gazteek** egiten dituzte, dastatze tasetan agertu den bezala. Oro har, kontsumoak gora egiten du adinarekin batera; 13 urterekin %6.3ko tasa izatetik 15 urterekin %21.9 izatera igarotzen da. Hala ere, 16 urterekin %18ra jaisten da, baina 17 urterekin berriz ere %33.7ra igotzeko, hau da urte batetik bestera 14,8 puntuko desberdintasuna dago.


KALAMU KONTSUMOA ADINAREN ETA GENEROAREN ARABERA

Ikus 7. eranskina



ZENBATERO KONTSUMITU DUZU?

Azken hilabeteetan marihuana edo hatxisa kontsumitu dutenetatik, **%11.6k egunero edo ia egunero kontsumitzen dutela onartu dute**. Hauetatik %23,8a emakumeak dira eta %76,2a gizonak, ez baitago egunero kalamua kontsumitzen duen genero ez bitarreko pertsonarik. Adinari dagokionez, eguneroko kontsumoa 15 urterekin agertzen dela esan genezake (%5.5), tasarik altuenak 18 urte edo gehiago pertsonetan izanik.



Generoa aztertuz, nahiz eta emakumeak diren arinago hasten direnak kalamua kontsumitzen, eguneroko kontsumitzaile kopurua oso baxua da. 15 urtetik aurrera adin gehienetan gizonezkoen tasak emakumezkoen baino altuagoak dira.

► KALAMUA KONTSUMITZEKO ARRAZOIAK ETA TESTUINGURUA


Garrantzitsua da ezagutzea zeintzuk diren pertsonak kalamuaren kontsumora bultzatzen dituzten arrazoi nagusiak, bestalde hurrengokoak izaten dira testuingururik ohikoenak:

KALAMUA KONTSUMITZEKO ARRAZOIAK

Kuriositatea	% 15.0
Ondo pasatzeko era berria	% 4.7
Inguruan dagoelako	% 2.5
Lagun taldeak egiten duelako	% 1.9
Bizitza beste era baten bizitzeko	% 1.5
Frustrazio edo gatazka baten ondorioz	% 1.4

KALAMUA KONTSUMITZEKO TESTUINGURUA

Lagunekin nagoenean	% 91.0
Jairen baten nagoenean	% 91.0
Zer egin ez dakidanean	% 23.9
Ziurtasun eza sentitzen dudanean	% 19.4
Bakarrik nagoenean	% 13.4





BESTE DROGA BATZUEN KONTSUMOA

Aipatutako drogez gain, gizartean ohikoak izaten dira legezko edo legez -kanpoko beste substantzia batzuk kontsumitzea. Bermeon hurrengoak dira inkestan parte hartu duten ikasleek dastatu dituzten substantziak. (datu guztiak ikusteko ikus 8. eranskina).

1

Psikofarmakoak dira, alde handiz, inkestatuek beraien bizitzan gehien dastatu duten substantziak, izan ere beste drogen kontsumoarekin alderatuta tasak bikoitzak dira; gizonetzkoen kasuan %7.7dira noizbait dastatu dituztenak, emakumezkoenean %7.2ak eta pertsona ez bitarretan %15ak

2

Ondoren **kokaina eta kodeina** datoz, %3tik gorako tasekin. Kasu bietan, gizonetakoek emakumezkoek baino dastatze tasa askoz ere handiagoak erakusten dituzte (kokaina: %4.6 vs.%2.2; kodeina: %4.3 vs.%1.7).

3

Gainontzeko substantziak %2 eta %3aren artean mantentzen dira, tasarik baxuenak estasi eta heroinarenak dira.



Orokorrean antzeman daitekeenez, gizonetakoek emakumeek eta pertsona ez bitarrek baino dastatze tasa altuagoak dituzte.

AZKEN HILEKO BESTE DROGA BATZUEN KONTSUMOA

Ikus 9. eranskina

1

Psikofarmakoak dira ikasleen artean azken 30 egunetan gehien kontsumitu diren substantziak (%3.8), bereziki emakumeen artean (%5.6).

2

Bigarren substantzia kontsumituena **kokaina** da (%1.1), tasa zertxobait handiagoak gizonetan agertzen direlarik (%1.2).

3

Gainerako substantzien kontsumoa oso txikia da eta ez dira %1era iristen.



Generoa aintzat hartuta, nahiz eta ehunekoak baxuak izan, emakumeek ohituraz gehien kontsumitzen dituzten substantziak psikofarmakoak, kokaina, estasia, arnasgarriak, kodeina eta haluzinogenoak dira. Pertsona ez bitarren kasuan, argi eta garbi psikofarmakoak dira eta gizonen kasuan, psikofarmakoak, kokaina, arnasgarriak, speed-a, metanfetaminak eta haluzinogenoak.

DROGEN ARRISKU PERTZEPZIOA

ARRISKU PERTZEPZIO ALTUA

Substantzien kontsumoarekiko arrisku pertzepzioan arreta jarritz gero, orokorrean, **heroina eta kokaina** dira (%86) oso arriskutsu bezala antzematen diren drogak. Ondoren, ikasleen %68-69ren arabera, estasia, **speed-a eta substantzia haluzinogenoak** ere nahiko arriskutsuak dira.

ARRISKU PERTZEPZIO ERTAINA

Kalamuari dagokionez, parte hartu dutenen %59,5ek nahiko arriskutsua dela deritzote. Era berean, %51,1k droga **arnasgarriak** ere substantzia arriskutsutzat dituzte.

ARRISKU PERTZEPZIO BAXUA

Legezko drogak dira arrisku pertzepzio tasa baxuenak erakutsi dituzten substantziak (edari energetikoak %9; alkohola %24,6; %33,4k psikofarmakoak eta tabakoa %35,2ren ustetan da oso arriskutsua).

Ikus 10. eranskina

Arrisku pertzepzioa substantziaren kontsumo maiztasunarekin oso erlazionatuta dago, izan ere arrisku txikiagoa antzematen da urtean noizbait kontsumitzen bada, hilebetero, astero edo egunero kontsumituz gero baino.

ARRISKUEN PERTZEPZIOA MAIZTASUNAREN ARABERA

Ikus 11. 12. 13 eta 14. eranskinak

Azken urtean kontsumitzea

Bereziki azpimarragarria da kokaina eta kalamuaren arrisku pertzepzioak izandako jaitsiera, arrisku pertzepzio orokorrean ikasleen %86k antzematen baitzuten kokainaren kontsumoa oso arriskutsutzat, baina kontsumo maiztasuna azken urtera mugatzerakoan %62,3ra jaitsi da, ia 24 puntuko desberdintasuna. Kalamuarekin ere joera antzekoa da, %59,5etik %40,8ra jaisten da arrisku pertzepzio tasa.

Azken hilean kontsumitzea

Substantzia azken hilabeteetan, behin baino gehiagotan, kontsumitzeak arrisku pertzepzio tasa nabarmen igotzen du pertzepzio orokorrarekiko legezko drogen kasuan, baina legez-kanpoko drogetan pertzepzioa arin jaisten da.

Astebururo kontsumitzea

Kontsumoa astebururo egiteak era esanguratsu baten igoarazten du arrisku pertzepzioa, bereziki tabako, alkohol eta psikofarmakoena, eta igoera ez hain nabarmenarekin kalamua ere bai. Legez-kanpoko beste substantzien kasuan, arrisku pertzepzio orokorren antzeko baloreak mantentzen dira.

Egunero kontsumitzea

Egunero edo ia eguneroko kontsumo baten aurrean ikasleek duten arrisku pertzepzioa neurtu da. Kasu honetan arrisku pertzepzioa handiagoa da, batez ere legezko droga eta kalamuarekin.

Eta generoa kontua hartzen bada?



Emakumezkoek gizonetzkoek baino arrisku pertzepzio baxuagoa dutela antzeman da, alkohol, psikofarmako, arnasgarri, speed eta estasiari dagokionez. Tabako, kalamu, edari energetiko, kokaina, haluzinogenoak eta heroinaren kasuetan ordea, gizonetzkoak baino arrisku pertzepzio altuagoa erakutsi dute.


Genero ez bitarreko pertsonak orokorrean, arrisku pertzepzio baxua daukate substantzia gehienetan, edari energetiko eta psikofarmakoetan izan ezik. (Ikus 15. eranskina).

TEKNOLOGIA DIGITALAK, JOKO ETA APUSTUAK

Azken urtean egindako txat, sare sozial, bideo-joku, on-line joku, kirol apustu, karta joku eta zorizko jokuen erabilerari buruz galdetzean, honako hauek izan dira lortutako emaitzak:

TEKONOLOGIA DIGITAL, JOKO ETA APUSTUEN ERABILERA GENEROAREN ARABERA

(Ikus 16. eranskina)



TEKNOLOGIA DIGITAL, JOKO ETA APUSTUEN ERABILERA MAIZTASUNAREN ARABERA



TXAT ERABILERA

80,5ek txata (wathsappa, emaila, e.a.) **egunero edo ia egunero** erabiltzen dutela erantzun dute eta horretan **4 ordu edo gehiago** egoten dira egunero ikasleen %41,3.



SARE SOZIALAK

%59,3k erabiltzen dute egunero edo ia egunero eta kasu honetan ikasleen **%26,6k aitortzen dute 4 ordu edo gehiagoko erabilera.**



BIDEOJOKOAK

Joera desberdina dago eta ikasleek gehienbat **asteburuetan** erabiltzen dituzte (%22.9k) eta gutxi batzuk egunero (%9.8).



AURREZ AURREKO APUSTUAK

Erabilera asko jaisten da, ikasleen **%95,1k ez baitute ohituraz dirurik jokatzen** eta astero egiten dutenak, %1,5 baino ez dira.



ONLINE JOKO ETA APUSTUAK

Askoz ere ikasle gehiagok parte hartzen dute, **%77,9k azken urtean noizbait jokatu dutela aitortu baitute.**



PORNOGRAFIA WEBGUNE

Ikasleen **%90,3k azken urtean ez dituela erabili erantzun dute.**



TEKNOLOGIA DIGITALEN GEHIEGIZKO ERABILERA

Teknologia digitalen erabilerarekin erlazionatutako portaera desegokiak jendeak uste duena baino ohikoagoak dira inguruan, parte hartu duten ikasle askorengan antzeman ahal izan denez. Aztertu diren seinaleak honako hauek dira:

Deskonektatzeko zailtasunak



%19.2ri maiztasun handiarekin gertatzen zaie **teknologia digitalen bat erabiltzen ari direnean hori utzi ezin izatea**, eta %19.5 konektatuta jarraitzen dute nahiz eta gelditu nahi izan.


Emakumeetan gizonezko edo pertsona ez bitarretan baino ohikoagoa da; izan ere emakumeen %26.9ak sarritan bizitzen du egoera hau, gizonen %13 edo pertsona ez bitarren %20arekin alderatuta.

Lo gutxiago egitea



Partehartzaileen %18.8k sarritan interneten egoteagatik **lo gutxiago egiten dutela** aipatu dute. Egoera honen intzidentzia tasa altuenak 14 (%24.7), 15 (%18.8) eta 16 urteko (%24.4) ikasleetan antzeman dira, batez ere emakumezkoetan.

Azpiko grafikoan ikus daitezke lo egiteko zailtasun zehatzagoei buruzko datuak:



*Ez dira pertsona ez bitarrak agertzen pertsona bakarra baita sarritan lo egiteko zailtasunak dituen teknologia digitalen erabileraren ondorioz.

Senitartek arreta deitzea



Beste adierazle garrantzitsu bat, senitartekoei internetera konektatuta denbora gutxiago pasatzeko beharra aipatzea da. **%28.2ri askotan esaten diete familiakoek gutxiago erabili beharko lituzketela;** emakumezkoen %36.9ri, gizonezkoen %21.3ri eta pertsona ez bitarren %15ari.



TEKNOLOGIA DIGITALEKIKO MENDEKOTASUNA GARATZEKO ARRISKUA

Gaur egun teknologia digitalak ezinbesteko tresna bilakatu dira eguneroko bizitzan, batez ere gazteenentzat. Errealitate honek, teknologia digitalen erabilerarekin, joko eta apustuekin lotutako mendekotasunak garatzeko arrisku egoerak identifikatzea zailtzen du. Horregatik, Drogei buruzko Plan Nazionalaren gomendioei jarraituz, **CIUS** (Erabilera Konpultsiboko Eskala; Meermerk, Van Den Eijnden, Verlost eta Garretse, 2009) eskalaren bitartez, erabilera desegoki edo arazotsu baten adierazleak antzeman ditzakegu inkestatutako pertsonetan.

CIUS INKESTA

Tresna psikometriko hau, 14 galderaz osatutako galdetegi laburra da. Orik 56rako puntuazioa atera daiteke, horrek adieraziko du pertsona bakoitzak duen portaeraren larritasun maila. **28 puntu edo gehiago lortuz gero, teknologi digitalak modu konpultsiboan erabiltzeko arriskua egongo litzateke.**

Ikus 17. eranskina

MENDEKOTASUNA

Inkestatutako pertsonen **%4,3k** (34 pertsona) mendekotasun arazo larria erakusten dute. **22 emakume** (%6.1) teknologia digitalekiko mendekotasun arazo larri bat pairatzen egon daitezke eta **gizonen** kasuan tasa **11** pertsonara (%2.7) jaisten da.

GEHIEGIZKO ERABILERA

%13,2k (105 pertsona) gehiegizko erabilera egiten dute, hau da, epe labur edo ertainean mendekotasuna izateko arriskua dute. **Emakumeak** gailentzen dira, hauetatik **72 ikasle** (%20) mendekotasuna garatzeko arriskuan egon daitezke erakusten duten portaera joerengatik. **Gizonetan** ordea, **32** (%7.7) dira gehiegizko erabilera egiten dutenak eta **pertsona ez bitarretan bakarra** (%5).

PORTAERA DESEGOKIAK

%46,3k (368 pertsona) portaera desegokiak erakusten dituzte noizean behin.

ARRISKU TXIKIA EDO EZA

%36k arrisku gutxi edo ez dute inolako arriskurik erakusten.

ZIBERJAZARPENA


Jazarpena jokabide oldarkor eta bortitza da, non erasotzaileak etengabe erasotzen du biktima, beldurra, kaltea edo kontrola eragiteko asmoz. Bullying-a eskola-testuinguruan gertatzen den jazarpen modu bat da, ikaskide edo adin bereko ikasleen artean ematen dena. Teknologi digitalak agertzearekin batera, jazarpena eragiteko modu berria sortu da, ziberjazarpena.

ZENBATETAN SENTITU ZARA MEHATXATUTA, ERASOTUTA INTERNET BIDEZ?

Ikasleen **%81.1ek inoiz ere** ez duela horrelako egoerarik bizi erantzun du, **%4.9k noizbait eta %3.4k askotan**.

Generoari arreta jarritz, pertsona ez bitarretan jazarpena ohikoagoa dela islatzen da emaitzetan, %30ek bizi izan du (6 pertsonak), baina lagina ez denez esanguratsua ez da adierazgarria. **Gizon eta emakumeetan ordea, nahiko tasa antzekoak ageri dira**, gizonezkoetan %18,6 eta emakumeetan %18,3k pairatu izan dute ziberjazarpena.


Maiztasunari erreparatuz banaketa generoaren arabera desberdina da:



2017 eta 2021 URTEEN ARTEKO ALKOHOL KONTSUMOAREN KONPARATIBA

▶ ALKOHOLA PROBATZEA

2017. urtean Bigarren Hezkuntzako 718 ikaslek alkoholaren kontsumo ohitura, ezagutza eta jarrerari buruzko galdetegi bati erantzun zioten. Hortik ateratako datuak, 2021eko emaitzekin alderatuko ditugu, substantzia honen kontsumoan egon diren azken urteotako aldaketa nabarmenenak ikertu ahal izateko.



Urte batetik bestera orokorrean alkohola **probatu dutenen kopurua 14.1 puntu jaitsi da** (% 61.7 tik % 47.6ra).


Jaitsiera hau **nabarmenagoa da gizonezkoen artean** (16 puntuko jaitsiera) baina emakumezkoen tasa ere txikiagoa da (11.1 puntu gutxiago).

KONTSUMITZEN HASTEKO ADINA

13 urte eta
0 hilabete
2017an


13 urte eta
8 hilabete
2021ean

Hasiera kurba oso desberdina da urte batetik bestera. Lehen, **11 urtetik 12 urtera oso igoera esanguratsua ematen zen** eta ikasleen **%60.3k 12 eta 13 urte** artean dastatzen zuten alkohola; **2021 urtean aldiz, igoera garrantzitsuena 12 urtetik 13 urtera** ematen da eta gazte gehienek (**%56.6**) **13 eta 14 urte** bitartean probatzen dute lehen aldiz alkohola.



▶ ALKOHOLA KONTSUMITZEA

Probatzearen tasak jaitsi diren bezala, alkohol kontsumoan ordea, urteekin goranzko joera hartu dela ikus daiteke, hau da **kontsumitutako alkohol kantitateak gero eta handiagoak direla**. (Ikus 18. eranskina)





Eta generoa kontuan hartzen bada?

(Ikus 19. eranskina)

- > Gizon zein emakumeetan **0.1-15 alkohol unitate mailetan jaitsiera** esanguratsua egon da, 15-20 edo gehiagoko kontsumoetan berriz, igoera adierazgarria antzeman da.
- > **Emakumezkoen kontsumoak gizonezkoenak baino handiagoak** izaten jarraitzen dute ia alkohol unitate maila guztietan.
- > 2017.urteko ikerketako emaitzek, genero arteko **desberdintasun handienak alkohol kantitate baxu edo ertainetan** (0.1-10 alkohol unitate) ematen zirela berretsi zuten
- > 2021 urteko datuen arabera, **emakumeak** 200 gramo edo gehiagoko kontsumoetan **15.7 puntu gailentzen dira gizonengandik**.

20 ALKOHOL UNITATE EDO GEHIAGOREN KONTSUMOA EGUN BAKARREAN

Ikus 20. eranskina

Azken bost urteetan egon den aldaketarik nabarmenena alkohol kantitateen gehiegizko kontsumoa da.

13 urte	13 urteko emakumeen kasuan, %7.8 batetik %31.6ra igozten baita kontsumitzaile kopurua
15 urte	15 urtekoen artean ere %7.9tik %39 aldatzen da kontsumo altuen tasa. Adin tarte honetan, gizonezkoek ere gorakada handia izan dute kontsumoetan, %7.4tik %30.3ra igoz.
16-18 urte	16-18 urte bitarteko gazteak ere ez dira atzean gelditzen, gizonetan ia 27 puntuko igoera dago urte batetik bestera eta emakumezkoetan 56.6koa .

5.2 PERTSONA HELDUEN KONTSUMOA

Helduen artean ematen diren kontsumoak eta erabilerak Eusko Jaurlaritzaren "**Euskadi eta Drogak**" inkestan oinarritutakoak dira (2017). SIIs.ek eta Eusko Jaurlaritzak abiatuta 15 eta 74 urte bitarteko biztanleek erantzundako inkestaren datuak dira honako hauek:

PROBATZE ETA KONTSUMO OHITURAK

% 93.20k alkohola **probatu** dute:

Zenbatetan?

- % 81.20 **azken urtean**
- %71.50 **azken hilean**
- Emakumezkoen %7k eta gizonezkoen %19.10ek **egunero**



GENERO ETA ADINAREN ARABERA

Emakume eta gizonen arteko **desberdintasun handiena adin aurreratuagoetan ematen da:**

- 50 urtetik gorako emakumeak gutxiago kontsumitzen dute
- Gizonek kontsumoa handitzen dute erretiroa hartu ondoren

KONTSUMO OHITUREN JOERA

Kontsumoek gora egiten dute bizitzan zehar, azken urtean eta azken hilabeteen. Eguneroko kontsumoak beherantz jarraitzen du emakumeen artean eta gizonezkoen artean mantendu egiten da.

PROBATZE ETA KONTSUMO OHITURAK

% 51,20k tabakoa **probatu** du:

Zenbatetan?

- % 25.9k **azken urtean**
- %24.6k **azken hilean**
- %22.10ek **egunero**



GENERO ETA ADINAREN ARABERA

Alde handiak daude generoaren eta adinaren arabera:

- Emakumezkoen eguneroko kontsumoa gizonezkoena baino handiagoa da 29 urtera arte
- Emakumeak 25-29 urte bitartean iristen dira eguneroko kontsumo-gorenera eta gizonezkoak 45-64 urte bitartean

KONTSUMO OHITUREN JOERA

Tabakoaren kontsumoak beherantz jarraitzen du herritarren artean, azken 12 hilabeteetan, azken 30 egunetan eta egunero egiten diren kontsumoetan.

PROBATZE ETA KONTSUMO OHITURAK

% 35.20k tabakoa **probatu** du:

Zenbatetan?

- % 11.0k **azken urtean**
- % 9.10ek **azken hilean**
- % 2.10ek **egunero**



GENERO ETA ADINAREN ARABERA

Alde handiak daude generoaren eta adinaren arabera:

- Gizonen kontsumoa handiagoa da adin guztietan.
- Batez ere 15 eta 30 urte bitartean.


KONTSUMO OHITUREN JOERA

Bizitzan noizbait kontsumitu izatearen tasa handitu egin da, baita egungo kontsumoa ere. Eguneroko kontsumoa mantendu egin da emakumezkoen artean eta pixka bat igo da gizonezkoen artean.

ERABILERA ETA MENDEKOTASUNA

Biztanleriaren **%85.10ek** erabili ohi du Internet (gizonen % 86.10ek eta emakumeen %84.10ek).

- % 4.3k **mendekotasun arriskua**
- % 0.7k **erabilera arazotsua**



GENEROAREN ARABERA

Adikzio- arriskua eta erabilera problematikoa zertxobait handiagoa da **emakumeen artean**.

APUSTU OHITUREN JOERA

Biztanleen %24.30ek loteria, kiniela eta abarretan jokatzen du astero, gizonezkoek emakumezkoek baino tasa handiagoak dituzte eta gehien jokatzen dutenak 35 eta 74 urte bitartekoak dira.

Kirol-apustuak ohikoagoak dira 15 eta 35 urteko gizonen artean, eta %750eko igoera egon da 2012 eta 2017 urte bitartean

6

KOMUNITATEAK ADIKZIOEKIKO DUEN PERTZEPZIOA

Bermeoko errealitatearen egungo diagnosi eta beharrak zehaztu ahal izateko, funtsezkoa izan da herriko eragile esanguratsu eta desberdinek substantzien kontsumo eta jokabide arazotsuei buruz duten ikuspuntua zein den jakitea.

Horretarako, parte-hartze ereduan oinarritzen den metodologia jarraitzea erabaki da; izan ere lan-metodo honek, gizartearen arlo eta sektore guztietako herritarren iritzia biltzea ahalbidetzen du, hasiera batetik pertsonak planaren eratze prozesuan inplikatur eta aurrerago egingo diren diagnosi, plangintza eta ebaluaketa ekintzetan beraien jarraipen aktiboa sustatuz.

Tokiko planean komunitatearen parte-hartzea bermatzeko eta ahalik eta informazio gehien eskuratzeko helburuarekin, bi estrategia garatu dira.

Alde batetik, **udalaren webgunean, era anonimoan erantzun daitekeen galdetegi labur bat eskegi zen**, gaiarekiko interesa duen edozein herritarrentzat. Eta bestetik, **herriko hainbat arlo eta sektoretako eragile esanguratsuekin osatutako lau eztabaida-talde** sortu ziren.

Udal langile eta politikariak

Hainbat sailetako zinegotziak, udal teknikari eta administrariak, udaltzain burua eta alkatea. **Guztira 11 pertsonak** parte hartu dute, 5 emakume eta 6 gizonak.

Hezkuntza arloko langile eta ordezkariak

Arozena-Barrueta BHI, San Frantzisko Eskola, Sagrado Corazon ikastetxea, Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutua, Nautika Eskola eta Eleizalde ikastolako langileak eta guraso batek. **Guztira 13 pertsonak** parte hartu dute, 9 emakume eta 4 gizonak.

Ostalari, dendari, aisialdi, kultur, kirol elkarteak eta herritarrek

Tabernetako jabeak, Bermeoko rock eta musika taldeetako kideak, supermerkatuko langileak, eskubaloia, futbol eta gimnasia erritmikoko kirol-taldeetako kideak, kale hezitzaileak, Bermeoko “Norez” talde feministako kideak eta herriko 3 gaztek. **Guztira 14 pertsonak** parte hartu dute, 6 emakume eta 8 gizonak.


Osasun arloko langile eta ordezkariak

Farmaziako langileak, Osasun zentroko pediatra, mediku eta administrariak, Bermeoko Gizarte Ongizateko langileak eta Bermesex zerbitzuko aholkulariak. **Guztira 10 pertsonak** parte hartu dute, 9 emakume eta 1 gizon batek.


Herritarren partaidetza

PARTE-HARTZAILEAK

Guztira 259 pertsonen erantzun dute galdetegia:



SUBSTANTZIARIK GABEKO ADIKZIO NAGUSIAK




ADIKZIOEN PREBENTZIORAKO BEHARREZKO EKINTZAK




SUBSTANTZIADUN ADIKZIO



PERTSONA TALDE ZAURGARRIENAK



PREBENTZIO BALIABIDEEN EZAGUTZA ETA BALORAZIOA




10 pertsonatik 6k ez dituztela programak ezagutzen aitortu dute


Participación ciudadana

PARTICIPANTES

En total han sido 259 las personas que han respondido la encuesta:



PRINCIPALES ADICCIONES SIN SUSTANCIA




ACCIONES NECESARIAS PARA LA PREVENCIÓN DE ADICCIONES




PRINCIPALES ADICCIONES CON SUSTANCIA



GRUPOS DE PERSONAS MAS VULNERABLES A LA ADICCION



CONOCIMIENTO Y VALORACION DE LOS RECURSOS DE PREVENCIÓN



6 personas de 10 admiten no conocer los programas de prevención

Herriko eragileen eztabaida taldeak

PARTAIDEAK

EMAKUMEA
GIZONA
P. EZ BITARRA

OSASUN
ARLOA

HEZKUNTZA
ARLOA

UDAL LANGILE
ETA
POLITIKARIAK

OSTALARI, MERKATARI, KULTURA,
KIROL, AISIALDI, ELKARTE ETA
HERRITARRAK

MENDEKOTASUN ARAZO NAGUSIAK

Alkohola eta kannabisa gehien kontsumitzen direnak. Psikofarmakoen gorakada eta kokaina legez kanpoko drogen artean

Sare sozialak, Internet, bideo-jokoak, kasino jokoak eta kirol apustuak

Adinaren arabera alkohola eta kannabisaren kontsumoa adin tarte guztietan ematen da, baita psikofarmakoena ere. Kokainaren kontsumoa helduen artean da nagusi

Substantziadun adikzioetan ez da desberdintasun handirik nabaritzen, baina emakumezkoak arinago hasten dira.

Bideojoko eta apustuak gizonezkoen artean gailentzen dira, sare sozialak emakumezkoetan

Nerabe eta gazteek astean zehar tabako eta kannabisa, kale, lokal zein tabernetan eta asteburuetan alkohola gehitzen dute.

Helduen artean alkohola, tabakoa eta kannabisa egunerokotasunean eta asteburuetan beste droga sintetiko batzuk

ARRISKU FAKTOREAK

DROGEN GEHIEGIZKO
ONARPENA

DESINFORMAZIOA

BEREHALAKOTASUNA
ETA KONTSUMO
GIZARTEA,
INDIBIDUALISMOA

MEMORIA
HISTORIKOAREN GALERA

ESTIGMA SOZIALA

ESKURAGARRITASUNA
ETA KONTROL FALTA



ESKAINNTZA DESEGOKIA
ETA TXIKIA

KONTROLIK GABEKO
LOKALAK



KOMUNIKAZIO ETA
ATXIKIMENDU EZA

KALITATEZKO DENBORA
GUTXI SEME- ALABEKEN

HEZKUNTZA EREDU
DESEGOKIA

FAMILIEN ARTEKO
LEHIAKORTASUNA



EMOZIOAK KUDEATZEKO
ZAILTASUNAK

NERABEZAROA

NERABE ETA GAZTEEN
SINESMENAK

GAIXOTASUN MENTALAK

ADIKZIOEN TOKIKO PLANA

HEZKUNTZA ARLOKO LEHENTASUN ETA PROPOSAMENAK

ADIKZIOEN
PREBENTZIORAKO
FORMAKUNTZA HERRIKO
ERAGILEEKIN

PREBENTZIOA ADIN GOIZTIARRIETAN
HASI, KONPETENTZIA EMOZIONALAK
LANDUZ, KONTSUMOEN INFORMAZIOA
EMANEZ ETA BELDURREZKO EDOTA
GEHIEGIZKO ONARPENKO
IKUSPUNTUAK BAZTERTUZ

FAMILIA LAN TALDEAK
SORTU HERRI MAILAN ETA
HEZIKETAN
AHALDUNTZEKO
FORMAKUNTZA ESKAINI

OSASUN ARLOKO LEHENTASUNAK ETA PROPOSAMENAK

HAUR ETA NERABEEN ARRETA
PSIKOLOGIKO/PSIKIATRIKOA
INDARTU

TABAKOA UZTEKO TALDEAK
MARTXAN IPINI

HAINBAT ERAGILEREN
ARTEKO KOORDINAZIOA

ANTOLATU AHAL IZATEKO
ESPASIO PUBLIKOAK ERATU

HERRITARREN IRITZIAN
OINARRITUTAKO AISIALDIA
ESKAITZEA ETA
LIBURUXKA BATEN BIDEZ
EZAGUTARAZTEA

HERRI HEZITZAILEAREN
EREDUA JARRAITU

DIAGNOSTIKOAREN
DATUAK EZAGUTARAZTEA

GAZTE LOKALEN
BIZIKIDETZA ARAUDIA

ARLO KOMUNITARIOKO LEHENTASUNAK ETA PROPOSAMENAK

UDALAK INDARTU
BEHARREKO ZERBITZU
ETA BALIABIDEAK

UDALERRIKO AISIALDIA SENDOTU

- Eskaintza handitu
- Gazteak antolatu ahal izateko espazioak sortu
- Eskaintzak gazte guztiengana heldu ahal izatea
- Kale hezitzailearen irudia sendotu
- Kaleko prebentzio esku-hartzeak sendotu

FAMILIA ETA IRAKASLEENTZAKO FORMAKUNTZA

- Ikastetxeetako prebentzio programak indartu
- Familiak seme-alaben hezkuntzan ahaldundu
- Programa guztietan genero perspektiba aintzat hartzea

ADIKZIOEN PREBENTZIO ZERBITZUA

- Mendekotasunei arreta emateko zerbitzua sortu
- Ikastetxeetan gazteei arreta psikologikoa ematen dion figura sortu
- Egiten diren ekintzak herritarrei ezagutarazi
- Mendekotasunen egoeraren diagnostikoa egin
- Sentsibilizazio kanpaina gehiago egin

Grupos de discusión de los agentes del municipio

PARTICIPANTES

MUJER
HOMBRE
P. NO BINARIA

AMBITO
SANITARIO

AMBITO
EDUCATIVO

POLITICOS Y
TRABAJADORES
MUNICIPALES

HOSTELEROS, COMERCIANTES,
GRUPOS DE OCIO, CULTURA,
DEPORTE Y CIUDADANOS EN
GENERAL

MAYORES PROBLEMAS DE ADICCION

El alcohol y el cannabis son los más consumidos. Se percibe un aumento en el consumo de psicofármacos y entre las drogas ilegales, el de la cocaína.

Redes sociales, internet, videojuegos, juegos de casino y apuestas deportivas

En función de la edad, el consumo de alcohol y cannabis se da en todas las franjas de edad, incluso los psicofármacos. El consumo de cocaína es más frecuente en adultos.

No se aprecian diferencias significativas de género en las adicciones sin sustancia, sólo que las mujeres se inician antes. En el uso de videojuegos y apuestas predominan los hombres y en el uso de redes sociales las mujeres.

Los jóvenes y adolescentes entre semana consumen tabaco y cannabis en la calle, local y bares, y los fines de semana suman el alcohol. Entre los adultos, en el día a día consumen alcohol, tabaco y cannabis y los fines de semana añaden alguna droga sintética.

FACTORES DE RIESGO



ACEPTACIÓN SOCIAL DEL
CONSUMO DE DROGAS

DESINFORMACION

SOCIEDAD DEL
CONSUMO Y LA
INMEDIATEZ,
INDIVIDUALISMO

PERDIDA DE LA MEMORIA
HISTORICA

ESTIGMA SOCIAL

ACCESIBILIDAD Y FALTA
DE CONTROL



OFERTA PEQUEÑA E
INADECUADA DE OCIO

LOCALES JUVENILES SIN
CONTROL



FALTA DE
COMUNICACIÓN Y
APEGO

MODELO EDUCATIVO
INADECUADO

POCO TIEMPO DE
CALIDAD CON LOS HIJOS
E HIJAS

LA COMPETITIVIDAD
ENTRE FAMILIAS



DIFICULTADES EN LA
GESTIÓN EMOCIONAL

CREENCIAS DE LOS
JÓVENES Y
ADOLESCENTES

ADOLESCENCIA

TRASTORNOS MENTALES

PRIORIDADES Y PROPUESTAS EN EL ÁMBITO EDUCATIVO

OFRECER FORMACIÓN EN MATERIA DE PREVENCIÓN EN ADICCIONES A LOS AGENTES DEL MUNICIPIO

INICIAR LA PREVENCIÓN EN EDADES TEMPRANAS, TRABAJANDO LAS COMPETENCIAS EMOCIONALES, OFRECIENDO INFORMACIÓN Y VISIÓN OBJETIVA SOBRE LOS CONSUMOS Y EVITANDO LOS DISCURSOS BASADOS EN EL MIEDO

CREAR A NIVEL MUNICIPAL GRUPOS DE TRABAJO FAMILIAR Y OFRECER FORMACIONES QUE EMPODEREN A LAS FAMILIAS

PRIORIDADES Y PROPUESTAS EN EL ÁMBITO SANITARIO

REFORZAR LA ATENCIÓN PSIKOLOJICA/PSIQUIATRICA EN INFANCIA Y ADOLESCENCIA

RETOMAR LOS GRUPOS PARA DEJAR DE FUMAR

REFORZAR LA COORDINACIÓN ENTRE LOS DISTINTOS AGENTES

OFRECER ESPACIOS PÚBLICOS PARA LA ORGANIZACIÓN CIUDADANA

PROPONER ALTERNATIVAS DE OCIO BASADAS EN LAS OPINIONES DE LOS CIUDADANOS Y CREAR UNA GUIA PARA DARLAS A CONOCER

SEGUIR LA LÍNEA DE LOS PUEBLOS EDUCADORES

DAR A CONOCER LOS DATOS DEL DIAGNOSTICO

NORMATIVA DE CONVIVENCIA PARA LOS LOCALES JUVENILEZ

PRIORIDADES Y PROPUESTAS EN EL ÁMBITO COMUNITARIO

SERVICIOS Y RECURSOS MUNICIPALES A REFORZAR

REFORZAR EL OCIO DEL MUNICIPIO

- Ampliar la oferta
- Crear espacios para que los jóvenes puedan organizarse
- Que todos los jóvenes puedan acceder a la oferta de ocio
- Reforzar el papel del educador de calle
- Reforzar las intervenciones en la calle

FORMACIÓN DIRIGIDA A FAMILIAS Y PROFESORADO

- Reforzar los programas de prevención de los centros escolares
- Empoderar a las familias en la labor educativa de sus hijos e hijas
- Incluir la perspectiva de género en todos los programas

SERVICIO DE PREVENCIÓN DE ADICCIONES

- Crear un servicio para dar atención directa en materia de adicciones
- Crear en los centros escolares una figura que ofrezca apoyo psicológico al alumnado
- Dar a conocer a los ciudadanos las acciones preventivas que se llevarán a cabo en el municipio.
- Realizar periódicamente un diagnóstico de la realidad
- Realizar campañas de sensibilización

7

LEHENTASUNEZKO ILDO, HELBURU ETA EKINTZAK

Bermeoko Adikzioen Tokiko Plana ardaizten duten oinarriak finkatu ahal izateko, aintzat hartu dira:



Udalerriko ikasleek
galdetegian emandako
erantzunak



Biztanleria helduaren
pertzepzioa



Euskadiko Adikzioen VII.
Plana



Adikzioen arloan eskura
dagoen ebidentzia
zientifikoa

Plan honek, Euskadiko VII. Planaren irizpideak jarraitzeaz gain, tokiko nortasun eta berezitasunekin bat dator. Horrela, 2022-2026 urteetan indarraldian egongo den tokiko plana, lehentasunezko 4 ildotan egituratzen da:

- 1. Osasunaren sustapena eta arrisku-jokabideen prebentzioa.** Bizi-eredu, -jarrera, -estilo, eta gune osasuntsuak garatzean datza; pertsonak, beraien osasuna baldintzatzen duten elementuengan kontrol handiagoa izan dezaten ahaldunduz. Aldi berean, adikzioen aurrean babesten duten faktoreak sendotu eta joera zein portaera arriskutsuak ekidin eta gutxitu nahi dira.
- 2. Drogen kontsumo, joko eta teknologia digitalen gehiegizko erabilerarekiko tolerantzia soziala murriztu eta eskaintza kontrolatu.** Adikzioa sortzen duten substantzien kontsumo eta portaeren gehiegizko onarpena txikiagotu nahi da, herritarren artean kontzientziakzioa, kritikotasuna eta norberaren ekintzen gaineko erantzukizuna sustatuz. Horretaz gain, indarrean dagoen arautegia betetzea bultzatu nahi da.
- 3. Ezagutzaren eta prestakuntzaren hedapena.** Udalerriko herritar eta gizarte eragile esanguratsuei adikzioen arloko ezagutza eta prestakuntza eskaini, prebentzio-jardueretan inplikazio eta parte-hartze handiagoa sustatzeko.
- 4. Sare lana eta koordinazioa.** Adikzioen fenomenoak modu integral eta diziplina anitzetatik heldu ahal izateko, ezinbestekoa da lan-sare zabal, eraginkor eta efizienteak ehuntzea komunitateko eragileen artean.



1. ildoak: Osasunaren sustapena eta arrisku-jokabideen prebentzioa.

HELBURUAK

Herritarrak portaera, jarrera eta ohitura osasuntsuetara bideratutako ezagutzaz eta baliabide eraginkorrez hornitu, osasuna eta ongizatea bermatzeko eta jokaerazko-adikzioak saihesten laguntzeko.

Adikzioen aurrean arrisku egoeran dauden eta zaurgarriak diren pertsona edo taldeen hautemate goiztiarra bermatu, eta beraien beharrezko egokitutako esku-hartze zehatzak garatzea eta aurrera eramatea.

Familiak seme-alaben heziketan ahaldundu, gurasotasun baikorrean oinarritutako prestakuntza, gaikuntza eta laguntza eman.

Gazte eta nerabeak mendekotasunen fenomenoaren aurrean babesteko eta arrisku-jokabideak ekiditeko eta txikiagotzeko, aisi gune eta eskaintza osasungarri eta erakargarri sortzea.

EKINTZAK

- Komunitateari orokorrean zuzendutako **sentsibilizazio eta informazio kanpainak.**
 - **Eskola/Heziketa-esparruko prebentzio programa.**
 - **Familia-esparruko prebentzio programa.**
 - Udalerriko **eragile esanguratsuei bideratutako informazio/ formakuntza programa.**
 - **Adikzioen prebentzio zerbitzua.**
-
- Hezkuntza, Osasun, Gizarte Ongizate eta beste profesionalen arteko **etengabeko komunikazio, koordinazio eta elkar-lana.**
 - **Eskola/Heziketa-esparruko prebentzio programa.**
 - **Gazteentzako sentsibilizazio-ekintzak.**
 - **Arriskuak eta kalteak murrizteko esku-hartze prebentiboak.**
 - **Adikzioen prebentzio zerbitzua.**
-
- **Familia-esparruko prebentzio programa.**
 - **Adikzioen prebentzio zerbitzua.**
 - **Sentsibilizazio- informazio kanpainak.**
 - **AMPA eta beste eragile batzuekin etengabeko koordinazio eta elkar-lana.**
-
- Udalerriko aisialdi egoeraren **diagnostikoa eta beharrianak antzematea.**
 - **Aisialdi osasungarrirako programa.**
 - Udalerriko **aisi gune publikoak asteburuetan irekita** mantentzea.
 - Udaleko hainbat sail eta zerbitzuren arteko **koordinazioa eta elkar-lana.**
 - **Arriskuak eta kalteak murrizteko esku-hartze prebentiboak.**
 - Udalerriko **eragile esanguratsuei bideratutako informazio/ formakuntza programa.**

HELBURUAK

Udalerrian antzematen diren substantzien kontsumo eta gehiegizko erabileren aurrean arriskuak murriztea.

Herritarrei adikzioen arloko zuzeneko arreta-zerbitzua eskaintzea; erabilera/ kontsumo arazotsu eta mendekotasun egoeren aurrean informazio, orientazio eta aholkularitza emateko.

Genero-ikuspegia prebentzio esku-hartzeetan txertatzea, generoaren arabera alderdi bereizgarriak substantzien kontsumo eta/edo jokabide adiktiboetan duten eragina aztertuz eta beharrezko neurriak ezarriz.

EKINTZAK

- **Arriskuak eta kalteak murrizteko esku-hartze prebentiboak.**
 - **Adikzioen prebentzio zerbitzua.**
 - **Sentsibilizazio- informazio kanpainak.**
 - **Eskola/Heziketa-esparruko prebentzio programa.**
 - Udalerriko **eragile esanguratsuei bideratutako informazio/ formakuntza programa.**
-
- **Adikzioen prebentzio zerbitzua.**
 - Hezkuntza, Osasun, Gizarte Ongizate eta beste profesionalen arteko etengabeko **komunikazio, koordinazio eta elkar-lana.**
-
- **Eskola/heziketa-esparruko prebentzio programa.**
 - **Aisialdi osasungarrirako programa.**
 - **Arriskuak eta kalteak murrizteko esku-hartze prebentiboak.**
 - **Adikzioen prebentzio zerbitzua.**



2. ildoak: Drogen kontsumo, joko eta teknologia digitalen gehiegizko erabilerarekiko tolerantzia soziala murriztu eta eskaintza kontrolatu

HELBURUAK

Herritarren hausnarketa eta parte-hartze aktiboa bultzatu udalerrian sozialki onartuta dauden substantzien (alkohol, tabako, kannabis, psikofarmako, e.a.) erabilera eta kontsumoa desnormalizatzeko eginkizunean.

Zorizko joko, apustu eta teknologia digitalen gehiegizko onarpena eta erabilera murriztuko dituen jarduerak sustatzea.

Legez-kanpoko drogen salmenta, hornikuntza eta kontsumoarekin zerikusia duten jarduerak kontrolatzea eta bai legezko edo legez-kanpoko substantzien eskuragarritasuna mugatu, egungo araudia betez.

Familiak droga kontsumo eta adikzio jokabideen arrisku pertzepzio eta ohitura osasuntsuen garapenean duten eraginaz eta erantzukizunaz ohartarazi.

EKINTZAK

- Komunitateari orokorrean zuzendutako **sentsibilizazio eta informazio kanpainak**.
- **Eskola/Heziketa-esparruko prebentzio programa.**
- **Familia-esparruko prebentzio programa.**
- Udalerriko **eragile esanguratsuei bideratutako informazio/ formakuntza programa.**
- Diagnostikoan ateratako datuak herritarrei plazaratu.
- **Arriskuak eta kalteak murrizteko esku-hartze prebentiboak.**

- Komunitateari orokorrean zuzendutako **sentsibilizazio eta informazio kanpainak**.
- **Eskola/Heziketa-esparruko prebentzio programa.**
- **Familia-esparruko prebentzio programa.**
- Udalerriko **eragile esanguratsuei bideratutako informazio/ formakuntza.**

- **Arriskuak eta kalteak murrizteko esku-hartze prebentiboak:** Gazteekin egiten diren esku-hartzeetan drogen legediari buruz informatu.
- **Familia-esparruko prebentzio programa.**
- **Udalerriko eragile esanguratsuei bideratutako informazio/ formakuntza programa.**
- **Neurri judizial eta polizialak.**

- **Familia-esparruko prebentzio programa.**
- **Adikzioen prebentzio zerbitzua.**



3. ildo: Ezagutzaren eta prestakuntzaren hedapena

HELBURUAK

Komunitateari drogen (batez ere onarpen maila handiena dutenak) eta substantziarik gabeko adikzioei buruzko informazio objektiboena helarazi.

Adikzioen alorrean, gizarte eragile desberdinei zuzendutako prestakuntza ekintzak garatzea eta dibulgazio materialak zabaltzea.

Herritarrak, herrian egingo diren adikzioen prebentziora bideratutako esku-hartzei buruz informatu.

Udalerriko adikzioen egoeraren aldizkako ikerketa egin, datuak eguneratuta edukitzeko, eta baita aurrera eramaten diren programa eta ekimenen ebaluazioa ere.

EKINTZAK

- Komunitateari orokorrean zuzendutako **sentsibilizazio eta informazio kanpainak**.
- **Udalaren webgunean** eta beste hedabide batzuen bitartez **adikzio eta prebentzio lana gizarteratu**.
- Diagnostikoan ateratako datuak herritarrei plazaratu.
- **Arriskuak eta kalteak murrizteko esku-hartze prebentiboak**.
- Agenteen **prestakuntza beharren diagnosia egin**.
- **Eskola/heziketa-esparruko prebentzio programa**.
- **Familia-esparruko prebentzio programa**.
- Udalerriko **eragile esanguratsuei bideratutako informazio/ formakuntza**.
- Interesa duten pertsona edo taldeei, **adikzioen prebentzio gaiarekin erlazionatutako material didaktikoak eskuragarri jarri**.
- **Udalaren webgunean** eta beste hedabide batzuen bitartez **adikzio eta prebentzio lana gizarteratu**.
- Eskualdean adikzioen prebentziora bideratutako baliabideen gida bat sortzea.
- Aldizka, **12 urtetik gorako ikasleen ohitura eta kontsumoak eguneratu**, joera aldaketak ahalik eta arinen antzeman ahal izateko eta neurriak hartzeko.
- **Adikzioen Prebentziorako Tokiko Planaren ebaluaketa egin**.
- **Udal prebentzio mahaiaren aldizkako bilerak antolatu**, tokiko planaren nondik norakoak gainbegiratzeko eta ebaluatzeko.



4. ildoak: Sare lana eta koordinazioa sustatu

HELBURUAK

Adikzioen esparruan inplikaturik dauden eragile publiko eta pribatuaren arteko lankidetzaren eta koordinazioa indartu.

Prebentzio eta aisialdi osasuntsu batera bideratutako ekintzen antolakuntzan herritarren partaidetza eta elkar-lana sustatu.


EKINTZAK

- Udal, Osasun, Gizarte Ongizate, Hezkuntza, Aisialdi, Kirol, AMPA eta beste agente esanguratsuen **inbentarioa (agenda) sortu**.
- Hezkuntza, Osasun, Gizarte Ongizate eta beste profesionalen arteko etengabeko **komunikazio, koordinazio eta elkar-lana**.
- Adikzioen Prebentziorako Tokiko planaren eraketan parte-hartu duten eragileei planaren ildo estrategiko, helburu eta ekintzak jakinarazi.
- **Udal prebentzio mahaiaren aldizkako bilerak antolatu**, tokiko planaren nondik norakoak gainbegiratzeko eta ebaluatzeko.
- **Adikzioen prebentzio zerbitzua**. Esku-hartzeetan jarduteko profesional arteko koordinazio protokoloa.
- **Eskola/heziketa-esparruko prebentzio programa**: Irakasleekin ikasturtean zehar egin diren prebentzio tailerren batzarra.
- **Udalerriko aisialdi egoeraren diagnostikoa eta beharrianak antzematea**: Herritarrei galdetegi bat egin.
- **Familia-esparruko prebentzio programa**: Famili eskoletan landu nahi diren alderdi edo gaiei buruz galdetu.
- **AMPA eta beste eragile batzuekin etengabeko koordinazio eta elkar-lana**.

EKINTZAK ETA PROGRAMAK

Tokiko planaren euskarri diren ildo estrategikoak eraginkortasunez lortu ahal izateko proposatutako **hamar ekintza eta programa** nagusiak **hiru jarduera-eremutan** biltzen dira:

- Familia esparrua.
- Hezkuntza eremua.
- Esparru komunitarioa.



ADIKZIOEN PREBENTZIO ZERBITZUA



Helburu zehatzak

- ✓ Adikzioen fenomenoak komunitatean duen eragin eta garrantziaz ohartarazi, ohitura osasungarriak sustatuz eta jarrera arazotsuak prebenitzeko beharrezko ekintzak garatuz.
- ✓ Udal agente eta erakunde eta/edo elkarteei adikzioen esparruko jardueren plangintzan aholkua eta laguntza eskaini, aurrera eramango diren esku-hartzeak integralak eta koordinatuak izan daitezen.
- ✓ Udalerriko pertsona, familia eta gizataldeei adikzioen alorrean dauden gizarte-baliabideei buruz informatu eta aholku eman; beharrezkoa izanez gero beste zerbitzu batzuetara bideratuz.
- ✓ Kontsumo eta/edo erabilera arazotsuen antzemate eta arreta goiztiarra eskaini.
- ✓ Kalte eta arriskuak murrizteko eta prebenitzeko ekintza zehatzak garatu.
- ✓ Adikzioen tokiko planean proposatutako programa eta jardueren plangintza, koordinazio, ezartze eta ebaluazioa egin.
- ✓ Herrian martxan dauden prebentzio eta osasun hezkuntza jarduera eta baliabideen bozgorailu jardun, informazio garrantzitsua herritarrei helaraziz.

Ekintza zehatzak

1

Zuzeneko arreta zerbitzua

2

Gehiegizko kontsumo/erabilera eta/edo adikzio kasuetan jarduteko protokoloa

3

Esku-hartzeetan erabiltzeko profesional arteko koordinazio protokoloa

Ebaluazio-adierazleak



Zuzeneko arreta zerbitzuak jaso duen pertsona/familia kopurua (adina, generoa eta kontsultaren arrazoiaren arabera).



Beste zerbitzuetara bideratutako pertsona/familia kopurua.




Udalerrian antolatutako prebentzio-ekintzetan parte hartu duten pertsona kopurua (adina/generoa).



Zerbitzuaren erabiltzaileen asetasun maila.

SENTSIBILIZAZIO ETA INFORMAZIO KANPAINAK



Helburu zehatzak

- ✓ Herritarrak gizartean onarpen maila handiena duten substantzia (alkohol, tabako eta kalamua) eta jokabideek (joko eta teknologia digitalak) osasunean eta autonomia pertsonalean eragiten dituzten ondorioei buruz informatzea, arrisku- pertzepzioa eta ezagutza areagotzen lagunduz.
- ✓ Herritarren jarrera, portaera eta ohitura osasuntsuen bereganatzea bultzatzeko asmoz, droga kontsumo, joko eta teknologia digitalen erabilerari buruzko hausnarketa eta pentsamendu kritikoa sustatzea, adikzioei buruz dituzten gizarte-irudikapenak eraldatuz.
- ✓ Zuzeneko arretak ematen duen hurbiltasunaz baliatuz, interesa duen herritar orori kontsumo eta portaera arazotsuei aurre egiteko baliabide eta tresna eraginkorrak eskaintzea.
- ✓ Herrian antolatutako kontzientziazio ekimenetan komunitatearen inplikazio eta parte-hartze aktiboa bultzatzea, joera aldaketa baterako beharrezkoa den erantzunkidetasuna sustatuz.
- ✓ Udaleko webgune eta sare sozialetan komunikazio estrategiak diseinatzea eta ezartzea.
- ✓ Mendekotasunek duten estigma sozialarekin apurtzea, ikusgarritasuna eta ahotsa emanez arazo hau pairatzen duten gizabanako eta gizataldeei.

Ekintza zehatzak

1

Gizartean onarpen maila handia duten drogen informazio eta kontzientziazio kanpainak

2

Gazteei zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak

3

Substantziarik gabeko adikzioen inguruko informazio eta sentsibilizazio-kanpainak

Ebaluazio-adierazleak



Sentsibilizazio eta informazio ekintzetan parte hartu duten pertsona kopurua (adina eta generoaren arabera).



Udalerrian antolatu diren kanpaina/ekintza kopurua (gaiaren arabera).



Parte-hartzaileen gogobetetze maila.

ESPARRU KOMUNITARIOA

ERAGILE ESANGURATSUENTZAKO

INFORMAZIO/ FORMAKUNTZA

PROGRAMA



Helburu zehatzak

- ✓ Gehiegizko erabilera/kontsumo eta baita adikzio prozesuari buruzko informazio objektibo eta egiaztatua eskaintzea hainbat lan-esparrutako profesionalei, hala nola, ostalaritza, merkataritza, udaltzain edo aisialdiko langileei (Ludoteka, Gaztelekua, kirol-aisialdia).
- ✓ Drogen eta jokaerazko-adikzioen prebentzioa bermatzeko, adikzioen fenomenoan inplikaturik dauden pertsonen arteko lankidetzaren sarea eratzea, antzemandako beharrei erantzun bateratu eta eraginkorra emateko.
- ✓ Prebentzio eginkizunean eragile bakoitzak dituen eskubide eta ardurei buruz hausnartzea.
- ✓ Abusuzko kontsumo/erabilera eta adikzio arazoaren aurrean hartu beharreko kalte eta arrisku murrizketa neurriak eta esku-hartzeak zehaztu.
- ✓ Interesa duten pertsonen, eskura dauden prebentzio eta tratamendu baliabideen berri eman.

Ekintza zehatzak

1

Prestakuntza beharren
diagnostikoa

2

Informazio/ formakuntza
hitzaldiak antzemandako
beharren eta arlo
bakoitzeko profesionalen
interesaren arabera
antolatuko dira

Ebaluazio-adierazleak



Udalerrian antolatu diren
informazio/formakuntza saio kopurua
(lan-arlo eta gaiaren arabera).



Formakuntza saio bakoitzean parte
hartu duten pertsona kopurua (lan-
arloka, adin eta generoka banatuta).



Parte-hartzaileen asetasun maila.

AISIALDI OSASUNGARRIRAKO PROGRAMA



Helburu zehatzak

- ✓ Udalerrian dauden aisialdi eta jai giroko baliabide eta jarduerak identifikatu, aztertu eta herritarren iritzia jasotzea.
- ✓ Herritarren beharrei egokitutako aisialdi osasuntsu eta erakargarria eskaintzea, genero ikuspegia aintzat hartuta, eta hauek jardueren diseinu eta hedapenean parte hartzea sustatu.
- ✓ Herriko haur eta gazteen aisialdiaren egoera aztertu, adin tarte bakoitzean dauden behar eta gabeziak detektatu eta aukera hezitzaile eta/osasuntsuen proposamen berriak sortzea.
- ✓ Zenbait ekintza herriko gazteekin adostea, beraien aisialdi denboraren kudeaketan inplikatur eta erabakitzeke ahalmena emanez.
- ✓ Baliabide ekonomiko urriak dituzten familietako haur eta nerabeen parte hartzea bermatzea udalak antolatutako aisialdiko ekintzetan, hau da, egoera ekonomikoa oztopo izan ez dadila.
- ✓ Aisialdi eta jaiegunetan, aisialdi osasuntsura bideratutako ekintzen antolakuntzan udal, hezkuntza, osasun eragile, elkarte, familia (AMPA) eta herritarren arteko elkar-lana eta parte-hartzea bultzatzea.
- ✓ Aisialdi eta jai-giroan substantzien kontsumoak eragin ditzaketen kalteak eta arriskuak prebenitzeko eta murrizteko ekintzak antolatzea.
- ✓ Jai -giroan, alkohol kontsumo eta jaiaren arteko binomioarekin apurtzen dituzten jarduerak antolatzea, bereziki gazteentzako direnak.

Ekintza zehatzak

1

Udalerriko aisialdi egoeraren diagnostikoa eta antzemandako beharretara moldatutako ekintzak antolatzea

2

Herritarrei bertako aisialdi eskaintzaren eta beharrezanez buruz galdetzea

3

Aisi gunek publikoak irekita mantentzea asteburuetan

4

Jai -giroan, herritar ororentzako kalte eta arriskuak murrizteko jarduerak egitea

Ebaluazio-adierazleak

- ➔ Aisialdi eskaintzaren galdetegian parte hartu duten pertsona kopurua (adina/generoaren arabera)
- ➔ Udalerrian herritarren beharrei erantzunez, aisialdian antolatu diren jardueren kopurua.
- ➔ Jai -giroan egin diren prebentzio ekintza kopurua.
- ➔ Ekintzetan parte hartu duten pertsona kopurua (adina eta generoaren arabera).
- ➔ Parte-hartzaileen iritzia eta gogobetetze maila.

ARRISKUAK ETA KALTEAK MURRIZTEKO ESKU-HARTZE PREBENTIBOAK



Helburu zehatzak

- ✓ Esku- hartzeetan parte hartzen duten pertsonen drogen kontsumo, portaera adiktibo eta indarrean dagoen legediari buruzko informazio eta aholkularitza ematea, bai jokabide arriskutsuak ekiditeko, bai kalteak txikitzeko.
- ✓ Prebentziozko esku- hartzeak eskola- testuingurutik kanpo egitea. Udalerriko gazte eta nerabeen aisialdiaren errealitatera hurbiltzea ahalbidetzen du, beraien bizipen pertsonalak eta zalantzak, konfiantzazko giroan, adikzioen gaian aditua den norbaitekin partekatzeak aukera emanez.
- ✓ Asteburu eta jai- egunetan hezitzaileen presentzia sendotzea, herriko nerabe eta gazteen artean prebentzio-eragileen irudia ezagutaraziz.
- ✓ Adikzioen aurrean arrisku egoeran edo zaurgarriak diren pertsona edo gizataldeei prebentzio eta tratamendu baliabideen berri ematea.
- ✓ Udalerriko erabilera eta kontsumoen errealitatea ezagutzea.
- ✓ Herritarrak beraien osasun eta ongizate prozesuen protagonista bilakatzea, beraien bizi kalitatea hobetuko duten erabakietan ahaldunduz.

Ekintza zehatzak

1

Tabakoa uzteko, bakarkako edo taldeko, programak

2

Aisialdi testuinguruetan (kale, lokal, jaigiro, e.a.), gazte eta nerabeentzako esku-hartze prebentiboak

3

Jai -giroan, herritarrentzako kalte eta arriskuak murrizteko jarduerak (testing, alkoholimetriak, e.a.)

Ebaluazio-adierazleak

- ➔ Jai-giroan eta aisialdi testuinguruetan gazteekin aurrera eramanez diren esku-hartze prebentibo kopurua (adina eta generoa aintzat hartuta).
- ➔ Esku-hartzeetara bertaratu diren pertsona kopurua (adina eta generoa aintzat hartuta).
- ➔ Tabakoa uzteko jardueretan parte hartu duten pertsona kopurua (adina/ genero).
- ➔ Parte-hartzaileen aletasun maila.



Helburu zehatzak

- ✓ Droga kontsumo eta jokaerazko -adikzioek osasunean duten eraginari buruz ikerketan lan egiten duten erakundeekin elkar-lanean aritzea.
- ✓ Komunitateko hainbat sektore eta esparrutako agenteekin komunikazio-kanalak ezartzea.
- ✓ Herritarrak, udalerriko adikzioen egoerari buruz informatuta mantentzea, norberaren pertzepzioa kontrastatzeko baliagarria izanik eta norbanakoak errealitate horrengan duen erantzukizunaz hausnarrarazteko eta aktiboki jokatzeko bultzatuz.
- ✓ Herrian martxan dauden prebentzio eta osasun hezkuntza jarduerak eta baliabideei buruzko informazioa herritarrei helarazi hainbat hedabideren bitartez.
- ✓ Adikzioen arloan, ebidentzia zientifikoan oinarritutako informazio egiaztatua zabaltzea eta eskura jartzea interesa duten herritarrentzako.
- ✓ Gehiegizko kontsumo eta/edo erabilera kasu eta adikzio egoeretan ahalik eta laguntza hoberena bermatzeko, hainbat esparrutako profesionalen arteko koordinazio eta lankidetzak erraztea eta eraginkorragoa bilakatzea.

Ekintza zehatzak

- 1**
Diagnostikoa ateratako datuak herritarrei plazaratu
- 2**
Udalaren webgune adikzio eta prebentzio lana gizarteratu
- 3**
Eskualdeko adikzioen prebentziara bideratutako baliabide gida egin
- 4**
Material didaktikoak eskuragarri jarri
- 5**
Agente esanguratsuen inbentarioa (Osasun, Hezkuntza, Udal, Aisialdi, e.a.)
- 6**
Esku-hartzeetan jarduteko profesional arteko koordinazio protokoloa
- 7**
Udal prebentzio mahaiaren bilerak

Ebaluazio-adierazleak

- Udalaren webgune edo beste hedabideetan, adikzioen prebentzioarekin zerikusia duen argitaratutako eduki kopurua (gaiaren arabera sailkatu).
- Material didaktikoa jaso duten pertsona kopurua (esparru, adin eta generoa aintzat hartuta)
- Profesional arteko koordinazio protokoloa erabili izan diren esku-hartze kopurua.
- Profesionalek esku-hartzearen emaitza edo prozesuarekiko duten asetasun maila.
- Adikzioen prebentzio zerbitzura bertaratutako pertsona kopurua.

ESPARRU KOMUNITARIOA

NEURRI JUDIZIAL ETA POLIZIALAK



Helburu zehatzak

- ✓ Udalerrian alkohol eta tabako salmentarekin erlazionatutako arau-haustek kontrolatzea.
- ✓ Ostalaritza eta merkataritza establezimenduek neurriak (adingabeei salmenta, itxiera ordutegia, e.a.) betetzen dituztela ziurtatzea.
- ✓ Bide publikoan, gazte eta nerabeek egiten duten gehiegizko alkohol kontsumoaren aurka neurri zuzentzaileen ezarpena sustatzea.
- ✓ Bide publikoan, kannabis eta beste substantzia batzuen kontsumoarekin erlazionatutako arau-haustek gainbegiratu eta beharrezko neurri judizialak ezartzea.
- ✓ Herrian dagoen legez-kanpoko droga trafiko sareen kontrako esku-hartzeak indartzea, batez ere kalamu eta kokaina salmenta.
- ✓ Apustu etxe edo kasinoetara adingabeen sarbidea kontrolatzea.

Ekintza zehatzak

1

"Bide publikoan alkohola eta beste substantzia batzuk kontsumitzeagatik eta/edo eukitegatik ezarritako zehapen/isun ekonomikoen ordezkotako neurrien programa"

2

Indarrean dagoen legearen inguruko informazio/ formakuntza eskaini ostalaritza esparruko eragileentzako hitzaldietan

Ebaluazio-adierazleak

- ➔ Bide publikoan alkohol, kannabis edo beste drogen kontsumoagatik ezarritako zehapen eta/edo neurri hezitzaile kopurua (substantzia, adina eta generoaren arabera.)
- ➔ Adingabeei alkohol eta/edo tabakoa saltzeagatik ezarritako zehapen kopurua.
- ➔ Legezko eta legez kanpoko drogen salmentaren kontrola bermatzeko egin diren esku-hartze kopurua.
- ➔ Esku-hartzeen, zeharkako edo zuzeneko, hartzaile kopurua (adin, generoaren eta ekintzaren arabera).

PREBENTZIO ESKU- HARTZE, PLAN ETA EGOERAREN EBALUAKETA



Helburu zehatzak

- ✓ Prebentzio-ekintza eta esku-hartze anitzen bitartez, herriko mendekotasunen egoeraren bilakaera ezagutzea (kontsumitutako substantzien nagusitasuna, jokabide-adikzioen joera aldaketa, e.a.) genero ikuspegia kontuan izanda.
- ✓ Udalerrian gauzatutako prebentzio-programa eta -ekintzen egokitze eta eraginkortasun maila zehaztea; lortutako helburuen jarraipen eta ebaluazio jarraibideak garatuz.
- ✓ Adikzioen egoera eguneratua eta prebentzio esku-hartzeen balorazioa aintzat hartuta, herritarren beharretara egokitutako programa eta ekintza plana garatzea.
- ✓ Hasieran ezarritako helburuak lortu ez dituzten prebentzio-ekintza eta programak zuzentzeko, birplanteatzeko edo baztertzeko aukera ematea.
- ✓ Ebaluaketa prozesuak, adikzioen prebentzioan parte hartu duten gizabanako eta gizataldeen iritzi, iradokizun eta gogobetetze maila biltzea eta kontrastatzea.

Ekintza zehatzak

1

DBH, Batxilergo, OLH eta Erdi-mailako LH-ko udalerriko ikasleentzako droga kontsumo eta jokabide-adikzioei buruzko galdetegia egitea planaren indarraldian zehar

2

Prebentzio ekintza eta programa bakoitzaren ebaluazio/balorazio txostena

3

Adikzioen prebentzio esku-hartzeen urteko memoria teknikoak

4

Udal prebentzio mahaiaren bilerak

Ebaluazioa- adierazleak

- Urtean programatutako ekintza eta esku-hartzeetatik jasotako balorazio-txosten kopurua eta iritzia eman duten pertsona kopurua.
- Planaren indarraldian zehar egindako mendekotasunen egoeraren azterketan antzemandako joera aldaketak genero ikuspegia aintzat hartuta aztertu.
- Planaren indarraldian zehar gehitu, birplanteatu, zuzendu edo baztertu diren ekintza eta programa kopurua.
- Urtean egindako udal prebentzio mahaiaren batzar kopurua.

HEZKUNTZA ESPARRUA

ESKOLA/HEZIKETA

PREBENTZIO PROGRAMA



Helburu zehatzak: IKASLEAK

- ✓ Ikasleen adinari egokituta, mendekotasunen aurrean babes- eta arrisku- portaerak ekidin eta murriztuko dituzten ezagutza eta baliabide eraginkorrak eskaintzea, jarrera eta ohitura osasuntsuak sustatuz.
- ✓ Hezkuntza emozionalaren bidez, ikasleen adimen emozionala lantzea babes-faktore gisa (norbere -ezagutza, autoestimua, gizarte-trebetasunak, enpatia, asertibitatea, e.a.). Izan ere, gaitasun sozio-emozionalek egunerokotasunean eta etorkizunean ikasleek biziko dituzten gatazkei modu eraginkorrean aurre egiten lagunduko die, hala nola talde presio, estresaren eta antsietatearen kudeaketan.
- ✓ Substantziadun eta substantziarik gabeko adikzioen gaineko informazio egiaztatua ematea, hartutako erabakiekin kritikoak izan daitezen.
- ✓ Gehiegizko kontsumo eta jokabideek sor ditzaketen arrisku eta kalteez hitz egitea, moderazio eta erantzukizun balioak sustatuz. Aldi berean, arrisku egoeretan hartu beharreko neurriez informatzea.
- ✓ Ikasleak komunitatearen parte sentiarazi eta beraien bizi-prozesuan erabakitzeko gaitasuna dutela erakutsi, herrian antolatzen diren ekintzetan beraien parte-hartze aktiboa ikastetxeetatik bultzatuz.
- ✓ Ikasleei adikzioen udal prebentzio zerbitzuari buruzko informazioa eman, non zuzeneko orientazio, laguntza eta aholkularitza jasoko duten.

Ekintza zehatzak

1

Prebentzio tailerrak:
Lehen Hezkuntzako 5.
mailatik
Batxilergo/Erdi-
mailako LH-rainoko
ikasleentzako

2

Aurre-nerabe eta
nerabeen parte-
hartzea adikzioen
sentsibilizazio
kanpainetan

Ebaluazio-adierazleak

- Ikastetxeetan ikasturtean zehar egin diren prebentzio tailer kopurua (gai eta ikasmailaren arabera).
- Prebentzio tailerretan parte hartu duten ikasle kopurua (adin eta generoaren arabera).
- Tailerretan parte-hartu dutenen asetasun maila.
- Planaren indarraldian ikasleek parte-hartutako sentsibilizazio kanpaina kopurua eta gogobetetze maila.

HEZKUNTZA ESPARRUA

ESKOLA/HEZIKETA

PREBENTZIO PROGRAMA



Helburu zehatzak: IRAKASLEAK

- ✓ Irakasleak herriko mendekotasunen egoerari buruz informatuta mantentzea, ikasleen galdetegietatik ateratarako emaitzak adieraziz.
- ✓ Ikasturtean zehar ikastetxeetan egingo diren mendekotasunen prebentziorako tailerren helburu eta edukiak irakasleekin partekatzea, saioetan hizlariak ikasleengandik jasotako informazio kualitatibo eta kuantitatiboa plazaratuz.
- ✓ Adikzioen alorrean irakasleek dituzten prestakuntza premia eta/edo interesak aztertu eta identifikatzea.
- ✓ Osasunerako hezkuntza eta adikzioen prebentzioari buruzko prestakuntza ekintzak antolatzea, hezkuntza emozionalak portaera desegokiaren aurrean duen garrantzia azpimarratuz eta egunerokotasunean lagungarri izan ditzaketen tresna pedagogikoak eta material didaktikoak emanez.
- ✓ Prebentzio lanean eta osasunaren sustapenean, hezkuntza eragile bezala irakasleek dituzten eskubide eta arduren inguruan hausnarketa sustatzea.
- ✓ Ikasleen gehiegizko kontsumo edo erabilera eta adikzio kasuetan, beste esparruetako agenteekin elkarlanean aritzea eta aholkularitza eskaintzea.
- ✓ Familiei alde aurretik, ikastetxean egingo diren prebentzio tailerrei buruzko informazioa helaraztea.

Ekintza zehatzak

3

Irakasleentzako ikastaroak

4

Ikasleekin izandako prebentzio tailerren ebaluazio batzarrak irakasleekin

5

Ikasleen gehiegizko kontsumo eta/edo jokabide arazotsuen aurrean etengabeko laguntza eta koordinazio lana udal prebentzio zerbitzu eta osasun agenteekin

Ebaluazio-adierazleak

- Ikasturtean zehar egindako ikastaro kopurua (gaia eta ikasmailaren arabera).
- Ikastaroetan parte-hartu duten irakasle/profesional kopurua (gaia eta ikasmailaren arabera).
- Ikastaroetan parte hartu dutenen gogobetetze maila.
- Ikasturtean zehar egindako prebentzio tailerren ebaluazio batzar kopurua.
- Ikastetxe eta udal prebentzio zerbitzuaren arteko elkarlan kopurua (eskaera, ikasmaila, ebazpenaren arabera)

FAMILIA PREBENTZIO PROGRAMA



Helburu zehatzak

- ✓ Familiak herriko mendeotasunen egoerari buruz informatuta mantendu, ikasleen galdetegietatik ateratarako emaitzak jakitera emanez.
- ✓ Udalerrian antolatzen diren sentsibilizazio, informazio, prestakuntza eta aholkularitza ekintzetan familien parte-hartze aktiboa bultzatu, prebentzio eragileen arteko komunitate-sarea ehunduz.
- ✓ Familiak seme-alaben heziketan ahaldundu, droga kontsumo edo teknologia digitalen erabilera desagokiek eragin ditzaketen portaera arazotsuak ekiditeko eta murrizteko informazio eta baliabideak emanez:
 - Garunaren garapena ezagutzera eman, eboluzio-etapa bakoitzean (haurtzaroa, aurre-nerabezaroa, nerabezaroa eta helduaroa) izaten diren aldaketa psikoemozionalak ulertzeko.
 - Hezkuntza emozionalean oinarritutako prestakuntza jasotzea, seme-alaben adimen emozionalaren garapen osasuntsu batera bideratuz.
 - Emozio desatseginak (antsietate, estresa) kudeatzeko eta gatazkak eraginkortasunez konpontzeko baliabide eta estrategia praktikoak eskaintzea.
- ✓ Adikzioen arloan laguntza behar duten familiei arreta eta aholkularitza ematea udal prebentzio zerbitzutik.

Ekintza zehatzak

1

Familien prestakuntza behar eta interesak antzemateko galdetegia

2

Seme-alaben adinera egokitutako famili eskolak (haurtzaro, aurre-nerabezaro eta nerabezaroa)

3

AMPA eta beste eragile batzuen arteko koordinazio eta elkarlana prebentzio jardueretan

4

Udal adikzioen prebentzio zerbitzuaren aholkularitza eta laguntza

Ebaluazio-adierazleak

- ➔ Prestakuntza behar eta interesen galdetegian parte hartu duten pertsona kopurua (hezkuntza etapa eta gaiaren arabera).
- ➔ Ikasturtean zehar antolatutako famili eskola kopurua (hezkuntza etapa, gaiaren arabera).
- ➔ Familia eskoletan parte hartu duten pertsona kopurua (hezkuntza etapa, generoa, gaiaren arabera) eta asetasun maila.
- ➔ Ikasturtean zehar AMPA eta beste eragileen arteko elkarlan kopurua.
- ➔ Adikzioen udal prebentzio zerbitzuak familiekin urtean egindako esku-hartze kopurua.

8


PLANAREN EBALUAZIOA

Bermeoko Adikzioen Tokiko Planaren xede nagusia, droga kontsumoa eta jokabide adikzioak garatzeko aukerak ahalik eta gehien murriztea da, eta ondorioz, udalerriko biztanleria osoaren bizi-kalitatea hobetzea.

Aurkeztutako prebentzio -plana helburu horren lorpenerako eraginkorra izaten ari dela egiaztatzeko eta udalerriko errealitatera behar den moduan egokitzen dela frogatzeko, ezinbestekoa da ebaluazio- prozesu sistematiko eta jarraitua egitea, planaren indarraldi guztian zehar zein amaieran. Horretarako, jarduera- esparru bakoitzean proposatutako programa eta ekintzen ebaluazio- adierazle kuantitatibo eta kualitatiboak aztertuko dira: hau da, parte-hartze maila, hartzaileek erantzundako galdetegiak, erakunde edo adituek egindako txostenak, elkarrizketak, ebaluazio bilerak, e.a., zehazki:

- ▶ Programatutako **ekintza eta/edo esku-hartze** bat amaitzen den bakoitzean, ebaluatu egingo da, eta jardueraren iraupenagatik edo ezaugarri zehatzengatik beharrezkoa izanez gero, prozesuan zehar ere baloratuko dira helburu espezifikoek lortuak.
- ▶ Ekintza zehatz horiek barne hartzen dituzten **programak** ere modu berean ebaluatuko dira, amaieran eta prozesuan zehar, baina kasu honetan programak biltzen dituen ekintza bakoitzak, helburuen lorpenean, izandako eraginkortasun maila ere aintzat hartu behar da.
- ▶ **Jarduera- esparruen** (familia, eskola/heziketa eta komunitarioa) ebaluazioa ere egin behar da, programa eta ekintza bakoitzean aztertu beharreko adierazleetan oinarrituz. Urtean zehar bildutako ebaluazio datu guztiak, urteko memoria teknikoan jasoko dira, non ondorio nagusi eta etorkizunean burutu beharreko hobekuntza proposamenak zehazten diren.
- ▶ Adikzioen Prebentziorako Tokiko Planaren indarraldia bukatzen denean (2022-2026), plana bere osotasunean ebaluatuko da, hau da, bere disenua, planifikazioa, programa eta ekintzen gauzatze prozesua, eragin soziala eta lortutako emaitzak.

Planaren eratze prozesuaren sintesia



9

BIBLIOGRAFIA

- Alkoholari, alkoholismoari eta toxikomaniei buruzko ikerketen Espainiako Elkarte Zientifikoa. Ebidentzian oinarritutako prebentzioa.
<https://prevencionbasadaenlaevidencia.net/>
- Custorio, M., García, N., Orriols, R., Sánchez, P. eta Serra, M. (2013). *Droga-mendekotasunen prebentziorako tokiko plana egiteko gida*. Bartzelonako Aldundia.
- Euskal Estatistika Erakundea. <https://www.eustat.eus/indice.html>
- Gobernuaren Ordezkaritza (1985). Drogei buruzko Plan Nazionala.
<https://pnsd.sanidad.gob.es/home.htm>.
- Gobernuaren Ordezkaritza Drogei buruzko Plan Nazionalerako (2017). Adikzioen inguruko Estrategia Nazionala 2017-2024.
<https://pnsd.sanidad.gob.es/pnsd/estrategiaNacional/docs/180209 ESTRATEGIA N.ADICCIONES 2017-2024 aprobada CM.pdf>
- 20/2012 Dekretua, abenduaren 15ekoa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien eskumen eta jardun-arloak finkatzen dituena.
<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2012/12/1205617a.pdf>
- 1/2016 Legea, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralarena. <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2012/12/1205617a.pdf>

10 ERANSKINAK

1. eranskina: Alkohola lehenengo aldiz probatzea adin eta generoaren arabera

Adina	Probatu Gizonak	Probatu Emakumeak	Probatu Ez Bitarrak	Bataz bestekoa
11- 12 urte	%2,4	%12,3	%40*	% 8.0
13 urte	%21.0	%42.1	%0*	% 30.8
14 urte	%29.3	%54.7	%25*	% 40.0
15 urte	%69.7	%74.6	%66.7*	% 71.9
16 urte	%76.6	%90.0	%66.7*	% 94.9
17 urte	%75.0	%97.7	%100*	% 88.3
18 urte	%85.7	%100	-	% 90.0
19-30 urte	%90.9	%0*	%0*	% 68.8
31-45 urte	%100	-	-	% 100

2. eranskina: Alkohol unitateak adinaren arabera

Adina Unitateak	11-12	13	14	15	16	17	18 edo +
0	% 92.6	%71.7	% 62.0	% 39.1	% 35.6	%24.7	%25.0
0.1-5	% 2.5	-	%12.0	%11.7	% 14.4	% 1.3	-
5.1-10	% 0.6	% 1.9	% 5.3	% 6.3	% 5.6	-	% 3.6
10.1-15	-	% 1.9	% 2.7	% 2.3	% 1.1	% 1.3	-
15.1-20	% 1.2	% 3.1	% 2.0	% 7.0	%11.1	% 7.8	-
>20	% 3.1	% 17.6	% 16.0	% 33.6	%32.2	% 58.4	% 71.4
GUZTIRA	% 7.4	% 28.3	% 28.0	% 60.9	% 64.4	% 75.3	% 75

3. eranskina: Alkohol unitateak adinaren eta generoaren arabera

		0.1-5	5.1-10	10.1-15	15.1-20	>20
	G	--	--	--	%1.2	--
11-12	E	%5.5	%1.4	--	%1.4	%4.1
	EB	--	--	--	--	%40.0*
	G	%4.9	%1.2	%1.2	%3.7	%4.9
13	E	%2.6	%2.6	%1.3	%2.6	%31.6
	EB	--	--	--	--	--
	G	%7.3	%6.1	%3.7	%1.2	%9.8
14	E	%18.8	%3.1	%1.6	%3.1	%25.0
	EB	--	%25.0	--	--	--
	G	%13.6	%6.1	%3.0	%4.5	%30.3
15	E	%10.2	%6.8	%1.7	%6.8	%39.0
	EB	--	--	--	%66.7*	--
	G	%17.0	%2.1	%2.1	%14.9	%19.1
16	E	%12.5	%10.0	--	%7.5	%45.0
	EB	--	--	--	--	%66.7*
	G	--	%9.4	--	%6.3	%40.6
17	E	%2.3	%4.6	%2.3	%7.0	%72.1
	EB	--	--	--	--	%100*
	G	--	%5.0	--	--	%85.0
18 edo +	E	--	--	--	--	%100
	EB	--	--	--	--	--

*Pertsona bat edo bi gehienez

4. eranskina: Alkohol unitateak generoaren arabera

	GIZONA	EMAKUMEA	EZ BITARRA	GUZTIRA
0	254 - %61.4	161 - %44.7	13 - %65.0	429 - %53.9
1 - 7	62 - %15.0	69 - %19.2	3 - %15.0	134 - %16.8
8 - 15	71 - %17.1	93 - %25.8	2 - %10.0	167 - %21.0
16 - 19	19 - %4.6	14 - %3.9	1 - %5.0	34 - %4.3
> 19	8 - %1.9	23 - %6.4	1 - %5.0	32 - %4.0
GUZTIRA	414	360	20	796

5. eranskina: Tabako ohiko kontsumoa adin eta generoaren arabera

Adina	Kontsumitu Gizonak	Kontsumitu Emakumeak	Kontsumitu Ez bitarrak	Batez besteko tasa
11-12 urte	%0	%2.9	%0	%1.2
13 urte	%4.9	%21.1	%0	%12.6
14 urte	%4.9	%18.8	%0	%10.7
15 urte	%30.3	%27.1	%0	%28.1
16 urte	%17.0	%27.5	%0	%21.1
17 urte	%34.4	%48.8	%100*	%44.2
18 urte +	%78.9	%40.0	--	%60.7

*Pertsona bat edo bi gehienez

6. eranskina: Kalamua probatzea adinaren arabera

ADINA	EZ	BAI	TASA
11-12 urte	159	4	%2.4
13 urte	144	15	%9.4
14 urte	131	19	%12.7
15 urte	78	50	%39.1
16 urte	59	30	%33.7
17 urte	33	44	%57.1
18 urte edo +	11	17	%60.7

6. eranskina: Kalamua probatzea genero eta adinaren arabera

Adina	Probatu Gizonak	Probatu Emakumeak	Probatu Ez bitarra	Batez besteko tasa
11-12 urte	%2.4	%2.7	%0	%2.4
13 urte	%6.2	%13.2	%0	%9.4
14 urte	%6.1	%20.3	%25*	%12.7
15 urte	%39.4	%37.3	%66.7*	%39.1
16 urte	%34.0	%35.0	%0	%33.7
17 urte	%43.8	%65.1	%100*	%57.1
18 urte +	%75.0	%40.0	--	%60.7

*Pertsona bat edo bi gehienez

7. eranskina: Kalamua kontsumitzea genero eta adinaren arabera

Adina	Kontsumitu Gizonak	Kontsumitu Emakumeak	Kontsumitu Ez bitarrak	Batez besteko tasa
11-12 urte	%1.2	%1.4	%0	%1.2
13 urte	%3.7	%9.3	%0	%6.3
14 urte	%4.9	%14.0	%0	%8.7
15 urte	%30.3	%13.6	%0	%21.9
16 urte	%23.4	%15.0	%0	%18.9
17 urte	%37.5	%30.2	%100*	%33.7
18 urte +	%40.0	%0	--	%28.6

*Pertsona bat edo bi gehienez

8. eranskina: Beste droga batzuk probatzea

Substantzia	Probatu Gizonak	Probatu Emakumeak	Probatu Ez bitarra	Batez besteko tasa
Psikofarmakoak	%7.7(32)	%7.2(26)	%15.0(3)	%7.7
Kokaina	%4.6(19)	%2.2(8)	%0	%3.4
Kodeina	%4.3(18)	%1.7(6)	%0	%3.0
LSD-Keta-perretxikoak	%4.1(17)	%1.7(6)	%0	%2.9
Arnasgarriak	%2.9(12)	%2.8(10)	%5.0(1)	%2.9
Speeda-anfetaminak	%3.9(16)	%1.7(6)	%0	%2.8
Metanfetaminak	%3.6(15)	%1.9(7)	%0	%2.8
Estasia(MDMA)	%3.6(15)	%1.4(5)	%0	%2.5
Heroina	%3.1(13)	%1.4(5)	%0	%2.3

9. eranskina: Beste droga batzuen kontsumoa azken hilean genero eta adinaren arabera

Substantzia	Kontsumo Gizonak	Kontsumo Emakumeak	Kontsumo Ez bitarra	Batez besteko tasa
Psikofarmakoak	%1.4(6)	%5.6(20)	%20.0(4)	%3.8
Kokaina	%1.2(5)	%0.8(3)	%0.5(1)	%1.1
Arnasgarriak	%1.0(4)	%0.6(2)	%0.5(1)	%0.9
LSD-Keta-perretxikoak	%0.7(3)	%0.6(2)	%0.5(1)	%0.8
Kodeina	%0.5(2)	%0.6(2)	%0.5(1)	%0.6
Speeda-anfetaminak	%0.7(3)	%0.3(1)	%0.5(1)	%0.6
Metanfetaminak	%0.7(3)	%0.3(1)	%0.5(1)	%0.6
Estasia(MDMA)	%0.5(2)	%0.6(2)	%0.5(1)	%0.6
Heroina	%0.5(2)	%0.3(1)	%0.5(1)	%0.5

10. eranskina: Arriskuen pertzepzioa drogaren arabera

SUBSTANTZIA	ARRISKU BAT ERE EZ EDO GUTXI	ARRISKU HANDIA EDO OSO HANDIA
TABAKOA	%27,2	%35.2
ALKOHOLA	%34.7	%24,6
PSIKOFARMAKOAK	%31.4	%33.4
KANNABISA	%12.2	%59.5
ESTASIA (MDMA)	%1.7	%69.5
SPEEDA-ANFETAMINAK	%2.7	%67.4
KOKAINA	%2.7	%86.0
HALUZINOGENOAK	%5.1	%67.5
ARNSAGARRIAK	%14,0	%51.1
HEROINA	%1.8	%86.7
EDARI ENERGETIKOAK	%64.1	%9.0

11. eranskina: Arriskuen pertzepzioa azken urtean kontsumitzea arrisku orokorraren aldean

SUBSTANTZIA	AZKEN URTEAN KONTSUMITU	ARRISKU HANDIA EDO OSO HANDIA	DESBERDINTASUNA
TABAKOA	%22,6	%35.2	%- 12.6
ALKOHOLA	%18.0	%24,6	%- 6.6
PSIKOFARMAKOAK	%29.8	%33.4	%- 3.6
KANNABISA	%40.8	%59.5	%- 18.7
ESTASIA (MDMA)	%51.6	%69.5	%- 17.9
SPEEDA- ANFETAMINAK	%50.2	%67.4	%- 17.2
KOKAINA	%62.3	%86.0	%- 23.7

12. eranskinak: Arriskuen pertzepzioa azken hilean kontsumitzea arrisku orokorraren aldean

SUBSTANTZIA	AZKEN HILABETEAN KONTSUMITU	ARRISKU HANDIA EDO OSO HANDIA	DESBERDINTASUNA
TABAKOA	37,9%	35.2%	+ 2.7%
ALKOHOLA	33.0%	24,6%	+ 8.4%
PSIKOFARMAKO	40.4%	33.4%	+ 7.0%
KANNABISA	56.3%	59.5%	- 3.2%
ESTASIA (MDMA)	62.6%	69.5%	- 6.9%
SPEEDA- ANFETAMINAK	62.1%	67.4%	- 5.3%
KOKAINA	79.0%	86.0%	- 7.0%

13. eranskinak: Arriskuen pertzepzioa astebururo kontsumitzea arrisku orokorraren aldean

SUBSTANTZIA	ASTEBURUR O KONTSUMITU	ARRISKU HANDIA EDO OSO HANDIA	DESBERDINTASUNAK
TABAKOA	%52,4	%35.2	%+ 17.2
ALKOHOLA	%44.3	%24,6	%+ 19.7
PSIKOFARMAKOAK	%50.6	%33.4	%+ 17.2
KANNABISA	%68.8	%59.5	%+9.3
ESTASIA (MDMA)	%69.2	%69.5	%- 0.3
SPEEDA- ANFETAMINA	%68.9	%67.4	%- 1.5
KOKAINA	%85.9	%86.0	%- 0.1

14. eranskinak: Arriskuen pertzepzioa egunero kontsumitzea arrisku orokorraren aldean

SUBSTANTZIA	EGUNEROKO KONTSUMOA	ARRISKU HANDIA EDO OSO HANDIA	DESBERDINTASUNAK
TABAKOA	%75,3	%35.2	%+ 40.1
ALKOHOLA	%76.5	%24,6	%+ 51.9
PSIKOFARMAKOAK	%65.6	%33.4	%+ 32.2
KANNABISA	%83.4	%59.5	%+ 23.9
ESTASIA (MDMA)	%73.5	%69.5	%+ 4.0
SPEEDA-ANFETAMINA	%73.8	%67.4	%+ 6.4
KOKAINA	%91.1	%86.0	%+ 5.1

15. eranskinak: Arriskuen pertzepzioa generoaren arabera

SUBSTANTZIA	EMAKUME	GIZON	EZ-BITAR	BATAZ-BESTEKO
TABAKOA	%39.4	%30.8	%30.0	%35.2
ALKOHOLA	%23,1	%26,3	%20,0	%24,6
PSIKOFARMAKOAK	%30.2	%35.5	%40.0	%33.4
KANNABISA	%61.1	%59.7	%30.0	%59.5
ESTASIA (MDMA)	%67.8	%71.3	%60.0	%69.5
SPEEDA-ANFETAMINA	%66.7	%67.9	%65.0	%67.4
KOKAINA	%87.7	%85.0	%80.0	%86.0
HALUZINOGENOAK	%68.1	%67.3	%55.0	%67.5
ARNASGARRIAK	%48.3	%53.6	%45.0	%51.1
HEROINA	%87.7	%86.2	%75.0	%86.7
EDARI ENERGETIKOAK	%9.7	%8.4	%10.0	%9.0

16. eranskinak: Teknologia digitalen erabilera generoaren arabera

	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	EZ BITARRAK
Txat erabilera	% 95.5	% 97.2	% 94.0	% 95.0
Sare sozialak	% 94.8	% 98.0	% 92.1	% 100
Bideo-jokoak	% 42.5	% 20.5	% 61.8	% 45.0
Pornografia orrialdeak	% 9.5	% 2.5	% 15.5	% 5.0
On-line dirua jokatzea	% 14.7	% 9.7	% 18.8	% 30.0
Internetik kanpo dirua jokatzea	% 4.8	% 1.7	% 7.5	% 5.0
Internet musika- pelikulak	% 67.2	% 54.2	% 78.5	% 65.0

17. eranskinak: CIUS emaitzak generoaren arabera

	GIZON	EMAKUME	EZ BITAR	GUZTIRA
0	17 -%4.1	7 -%1.9	1 -%5.0	%25 -3.1
1 - 14	166 -%40.1	92 -%25.6	4 -%20.0	262 - %33.0
15 -28	188 - %45.4	167 -%46.4	13 -%65.0	368 - %46.3
29 -42	32- %7.7	72 - %20.0	1 -%5.0	105- %13.2
43 -56	11-%2.7	22 -%6.1	1 - %5.0	34 - %4.3
GUZTIRA	414	360	20	794

18. eranskinak: 2017 eta 2021eko alkohol kontsumoa, edandako unitateen arabera

Alkohol unitateak	2017	2021
0.1 - 5	%9.7	%7.3
5 - 10	%5.7	%3.9
10 - 15	%3.5	%1.5
15 - 20	%3.1	%4.4
>20	%7.4	%24.4

19. eranskinak: 2017 eta 2021eko alkohol kontsumoa, edandako unitateen eta generoaren arabera

Alkohol unitateak	2017		2021	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
0.1-5	% 8.4	% 11.3	% 6.8	% 8.3
5.1-10	% 3.9	% 7.7	% 3.6	% 4.2
10.1-15	% 3.7	% 3.3	% 1.9	% 1.1
15.1-20	% 2.6	% 3.5	% 4.1	% 4.2
>20	% 6.6	% 8.3	% 17.1	% 32.8

20. eranskinak: 20 alkohol unitate edo gehiagoren kontsumoa egun bakarrean (2017 eta 2021)

	2017		2021	
	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK
11-12	%1.2	--	--	%4.1
13	%2.8	%7.8	%4.9	%31.6
14	%3.7	%16.9	%9.8	%25.0
15	%7.4	%7.9	30.3	%39.0
16-18	%21.3	%15.8	48.2	%72.4